Manex Agirre bertsolaria
Hirugarren izan da Arabako txapelketan
KULTURA, 24

Partidu txar batean Gonzalez irabazle
Azkainekoaren aireko jokoak erabaki zuen Kokaren aurkako partidua
KIROLA, 16

Pako Larrañaga
Iloba heriotzaren korridorean du
GEUREAN, 6

ASTELEHENEKO
Goienkaria

Astelehena • 2005eko apirilaren 11 • 2. urtea • 52. zenbakia • 0,90 euro

Eguenean egingo diote ebakuntza Jon Agirreri

Eguenaz geroztik Donostia ospitalean dago ebakuntzarako prestaketetan. Aramaioko presoa "ezin sinestuta" dago



ASTELEHENEKO GOIENKARIA

Hainbat urtez zain egon ostean, eguenean egingo diote ebakuntza Jon Agirre Aramaioko presoari. Eguenaz geroztik Donostiako Ospitalean dago eta haren hurbilekoek esan dutenez "ilusionatuta eta ezin sinestuta ebakuntza horren gertu ikusita". Agirreren osasun egoera latza da eta eguenean beharrezkoak dituen ebakuntzetatik lehena egingo diote eskuineko mokor hezurrean; protesia jarriko diote. 5

AINTZANE AGIRRE

'APIRILEKO PETRALALDIA' IZAN DA BOTATAKO ELURRA

Joxe Landak aditzera eman digunez, "baserritarren artean apirila hil arriskutsua izaten da eta ohikoa da apirileko petralaldia". Egubakoitz gauean hasi zen elurra Gorlan (688 m.) eta 5-7 cm arteko elurtea bota zuen. Atzo arratsaldean berriz ziharduen. Aramaion eta Elgetan ere ikusi dute. Eguenean okerraldia izango dugu, baina elurrik ez.

Ganbara abesbatzak 10. urtemuga ospatzeko azken ekitaldi jendetsua egin du 22-23

Gaur mobilizazio gehiago Arrasateko Olabarrieta eta Aztiria gazteen alde 5

Epele eta Kaskonategi arteko bidea

Gaur aurkeztuko du Diputatu Nagusiak tarte hori zabaltzeko proiektua 9

UDA-Mondra derbya gatzik gabekoa izan zen

Erik Garcia eta Kepa Azkue UDAko jokalariei zilarrezko intsignia eman zien klubak partidu aurretik 14

KATALIN ANTXIA

GEUREAN

• Hauteskunde kanpainaren barruan hainbat ekitaldi egon da asteburuan | 4
• Patxi Cabo Antzuolako preso ohiari afari-omenaldia egin zioten hainbat lagunek zapatuan | 5

Farmaziaren gaineko jardunaldiak astean, Eskoriatzako Ibarraundi museoan | 9

ARRASATEKO GAZTETXEAREN URTEURRENA

AINTZANE AGIRRE

Bazkalostean hainbat joko egin zituzten gaztetxean.

Egitaraua

APIRILAK 15
- **Hitzaldia**: Debako gaztetxekoen hitzaldia eta han egindako DVDaren aurkezpena, 19:00etan.

APIRILAK 16
- **Futbito txapelketa**: 24 orduko txapelketa, 15:30etik.

APIRILAK 17
- **Antzerkia:** Biga antzerki taldearen *Ni Mohamend*, 18:00etan.

APIRILAK 22
- **Hitzaldia**: *Gazteak eta Anorexia.* Amaia Arroyo, 19:00etan.

APIRILAK 23
- **Kontzertua**: Electra eta Noisex, 22:30ean.

APIRILAK 24
- **Pilota txapelketa**: Koadrilen arteko txapelketa, 10:00etan.
- **Zinea**: Film asiarren zikloa: *Osama*, 17:30ean.

APIRILAK 29
- **Hitzaldia**: Castillako gazte ezkertiarrak, 19:00etan.

APIRILAK 30
- **Irteera**: Kukutzara, okupazioaren kongresura.
- **Hitzaldia**: AHTren eraginak, 18:00etan.
- **Kontzertua**: Deus eta talde sorpresa, 22:30ean.

MAIATZAK 1
- **Film laburrak**: Eneko Haritzarekin, 18:30ean.

Hamalau urte egin ditu Arrasateko Gaztetxeak eta bi egoitza berrian

Ekainean beteko dira bi urte Arrasateko Gaztetxe berria estreinatu zenetik, baina gaztetxeak hamalau urte ditu dagoeneko. Hilabete osoko egitaraua osatu dute

Marijo Deogracias

Frantziskotarrenetik Uarkape ostera eraman zuten Arrasateko gaztetxea; ez oso urrutira, beraz. Baina harrezkero bi urte pasatu dira eta beste bi urterako kontzesioa geratzen zaie Gazte Asanbladakoei. Udalak jarritako lokala da eta bere egunean lau urtez erabiltzeko baimena eman zion Udalak Arrasateko Gazte Asanbladari. Asteburuetan taberna irekitzen dute eta koadrilen artean eramaten dute, txandaka, haren ardura. Egubakoitzero 25-30 gaztek asanbladak egiten dituzte egin beharrekoak banatzeko. "Behar dugun dirua tabernatik ateratzen dugu, antolatzen ditugun ekintzak egiteaz gainera, ura, argia eta bestelakoak geuk ordaintzen ditugu inolako laguntzarik barik", azaldu digute asanbladako kideek. Asteburu honetan gogora ekarri dizkigute kontu horiek bertako Gazte Asanbladakoek. Gaztetxearen urteurrena ospatzen hasi dira, hamalaugarrena, eta Udaberri jaia deitu dutenarekin hasi dute. "Negu partean ekintza gutxi izan dira gaztetxean, mugimendu gutxi izan dugu, eta gazteak berriz ere animatzeko asmoz Udaberri Jaia asmatu dugu", azaldu ziguten zapatu goizean gaztetxera elkartutakoek.

Tortilla lehiaketa egin zuten goizean -edo lur sagar opilak, kartelak zioen moduan. Zazpi taldek parte hartu zuten eta Onintze, Izaskun eta Arrestiri tokatu zitzaien gazteen sukaldaritza lanak epaitzea. Ikusi eta usaindutakogatik, zinez, gogoz jardun zuten denek: patatak txiki-txiki egin zituzten, piper gorriak saltsan nahastu zituzten "toke berezia emateko asmoz", apaingarri gozoekin atondu zituzten tortillak…

"Gazteak animatzeko asmoz asmatu dugu Udaberri jaia"

Zazpi taldek parte hartu zuten zapatu goizean gaztetxean egindako tortilla lehiaketan

Bitartean beste bost lagun, Mikel, Jon, Eñaut, Iraitz eta Igor bazkaria prestatzen aritu ziren: patatak txorizoarekin. "Jatetxe bateko sukaldariak eman digu errezeta eta orain dela hiru aste egin genuen lehenengoz, entsegu modura. Oso goxo atera zitzaizkigun". Hogeita hamar bat lagun elkartu ziren bazkalorduan eta osterako jolasak egin zituzten; iluntzean, Djamboree perkusio taldea aritu zen.

ASANBLADA BERRIA

Egubakoitzero egiten dituzte asanbladak Arrasateko gaztetxean. Koadrila biren artean eraman dituzte azkenaldian egitekoak, baina adierazi digutenez, "ondo legoke jende gazteagoa animatzea eta kideak berritzea".

ARRASATEKO GAZTETXEAREN URTEURRENA

• UDABERRI JAIA EGIN ZUTEN ZAPATUAN GAZTETXEAN



TORTILLA LEHIAKETA. Arrasateko Gaztetxean sukaldari talde bikaina dago. Horrela adierazi zuten tortilla lehiaketako epaimahaikide izan ziren Onintze, Izaskun eta Arrestik. Tortilla guztiak oso gozoak omen zeuden eta, erabakia zaila izan zen arren, irabazleak Ainhoa, Miren eta Nerea izan ziren.

BAZKALOSTEA. Bazkaria berandutu egin zitzaien, aurreko txikiteoa eta tortilla lehiaketa zirela eta, baina 30 bat lagun elkartu ziren gaztetxean egindako bazkarira. Patatak errioxar erara, entsaladarekin eta postrerako marrubiak jan zituzten. Ondoren, jolasak egin zituzten, giro onean.

PERKUSIO SAIOA. Djamboree perkusio taldeak emanaldia egin zuen gaztetxean. Egun osoko ekintzen ostean, gaueko 10ak aldera hasi ziren kontzertuan Djamboree perkusio taldeko neska-mutikoak. Giro bikaina jarri zuten gaztetxean, 14. urteurrenaren aitzakiaz antolatutako udaberri jaiari amaiera emateko.

PILOTA JAIALDIA. Domekan, goizeko 10etan egin zuten hitzordua Musakolako kiroldegian koadrilen arteko pilota txapelketa jokatzeko. Izena emandako bikoteetatik bost aurkeztu ziren lehenengo fasera eta 13:00ak arte aritu ziren pilotan, eskuak bero-bero egin arte. Bigarren fasea bi aste barru izango da eta amaitzeko afaria egingo dute.

• PATATA TORTILLA LEHIAKETAN PARTE HARTU ZUTENEKIN IZAN GINEN

JAGO, IKER ETA LIMONTXI |
ARRASATE

"Tortillarik gozoena egiteko asmoz etorri naiz, lehiaketa irabazteko"

Jago bakarrik eta Iker eta Limontxi elkarrekin aritu ziren tortillak egiten. "Baserritik ekarri ditut osagaiak. Tortillarik gozoena egiteko asmoz etorri naiz, lehiaketa irabazteko" adierazi zigun Jagok. Ikerrek eta Limontxik etxean eta lagun arteko afaritan ere tortillak egin izan dituztela aitortu ziguten.

LUAR ETA KOLDO |
ARRASATE

"Noizean behin egin izan dugu tortillarik"

Zapatukoaz gainera "noizean behin" egiten dituztela tortillak esan ziguten bi lagunek. Pipar gorriak ekarri zituzten osagai berezitzat: "eurengan daukagu esperantza jarrita".

MAITE ETA ANE |
ARRASATE

"Tortilla apaintzeko osagai asko ditugu"

Kantitateak Anek zekizkiela eta Luarrek patatak zuritzen eta txikitzen lagundu zion. "Tortilla apaintzeko osagai asko ekarri ditugu: izokina, tomate txikia, gazta…".

IRAIA, NEREA ETA MIREN |
ARRASATE

"Zartagin txikia ekarri dugu eta bost patata erabili ditugu tortilla egiteko"

Ez ziren talde berekoak hiru neskak. Nerea eta Mirenek osatutako bikoteak patatak lauki txikitxoetan ebaki zituzten; ondoan izan zituzten Iraia eta lagunak bost patatako tortilla egiten: "zartagin txikia ekarri dugu, beraz, bost patatarekin nahiko izango dela pentsatu dugu" adierazi zigun Iraiak. Nereak eta Mirenek irabazi zuten.

AINTZANE AGIRRE

60 lagunetik gora elkartu ziren bertso afarian egubakoitzean, Arrasaten.

Boto eskaria EHAKren alde Arrasaten eta Aramaion

Batasunak ilegalizazioak salatzeko manifestazioa egin zuen Arrasaten eta hitzaldia, berriz, Aramaion

Marijo Deogracias

Batasunak egubakoitzean egindako adierazpenei kasu eginez, Debagoieneko hainbat herritan ere EHAKren aldeko botoa eskatu dute ekitaldi politikoetan. Arrasaten, ezker abertzale ofizialak antolatutako bertso afari baten egin zuten ekitaldi politikoa. Botoa bertsotan eskatu zuten Iratin egindako bertso afarian, 60 bat lagunen aurrean. Jokin Labaien eta Enaitz Alustiza izan ziren bertsolariak.

Arratsaldean, Batasunak ilegalizazioak salatzeko manifestazioa egin zuen, "Oztopo guztien gainetik, ilegalizaziorik ez" leloarekin.

Eguenean, 19:00etan, Arnaldo Otegi eta Karmele Aierbe izango dira Arrasaten eta egubakoitzean Bergaran, Joseba Alvarez (19:30).

ARAMAION ERE ESKATU DUTE BOTOA

Batasunaren hautagai zerrendara aurkeztu zen Asier Imaz izan zen Aramaion egubakoitzean EHAKren alde botoa eskatzeko. "Eskubide zibilen defentsatik gertuen dagoen alderdia delako, babestu eta bultzatu egin behar dugu Legebiltzarrean ezker abertzalearen ahotsa izateko prest agertu delako" adierazi zuen Imazek.

• EZKER BATUA-BERDEAK, ARRASATEN

GOIATZ ARANA

EAJ-REN ETXEBIZITZA POLITIKA KRITIKATU DUTE

Aurreko legegintzaldian bezala, datorrenean ere babes ofizialeko etxebizitzen alde egingo dutela azpimarratu zuen Ezker Batua-Berdeak eguenean Arrasaten. Ander Rodriguez zinegotziak larritzat jo zuen herrian dagoen etxebizitza arazoa. Datozen lau urteetan babestutako 273 etxebizitza egitekoak dira eta hori oso kopuru txikia dela nabarmendu zuen, "batik bat, izena emanda 900 lagun daudela kontuan hartuta". Hala, Arrasateko EAJren etxebizitza politika kritikatu zuen. Jaurlaritzako Javier Buronek, bestalde, legebiltzarrean aurrera egin ez zuen Lurzoruaren Legea beharrezkoa dela gehitu zuen.

Labur

EAJ-EA ibarreko lau herritan izango da gaur

EAJ-EAko Gipuzkoako hautagaiak Debagoienean izango dira gaur, astelehena; Oñatin, Aretxabaletan, Arrasaten eta Bergaran izango dira, hain justu ere.

Goizeko 11:00etan Oñatin eta gero Aretxabaletan egongo dira hautagaiok propaganda banatzen herriko kaleetan barrena. Arratsaldean, berriz, Arrasaten banatuko dute propaganda 17:00etan, eta handik Bergarara joango dira. Bergaran 17:30etatik aurrera banatuko dute propaganda. Propaganda banatzeaz gain, ekitaldi politikoa ere egingo dute Bergaran, Onintza Lasak eta Joseba Egibarrek 19:30ean. Miguel Altuna institutuko areto nagusian izango da ekitaldi hori.

• PSE-EE, ARRASATEN

DEIANE ARRIETA

ARROSAK ETA PROPAGANDA BANATU ZITUZTEN AZOKAN

Elkarrekin bizi, bakean bizi. Patxi lehendakari leloa gidari zuela arrosak eta propaganda banatzen jardun zuen Blanca Roncal Arrasateko zinegotzi eta Gipuzkoako zerrendako hirugarrenak. Roncalek esan zuen alderdi sozialistak euskal gizartearekiko konpromisoa hartu duela: "Sarritan ahaztu egiten zaigu konpromisoaz eta eraikuntza sozialaz berba egitea, baina gizartean arazo ugari dago: etxebizitza, lana... Guk, gure programan jaso ditugu arazook". Popularrek elkarrekin gobernatzeko egindako proposamenaren harira esan zuen: "Bakarrik gobernatu nahi dugu; Patxi ez da inoren lehendakariorde izango".

Mobilizazio gehiago gaur, Olabarrieta eta Aztiriaren atxiloketak salatzeko

Arrasateko bi gazteek inkomunikatuta jarraitzen dute Madrilen. Eguen goizaldean atxilotu zituen Espainiako Poliziak

M.B.

Gaizka Olabarrietak eta Gorka Aztiria gazteek inkomunikatuta jarraitzen dutela eta, gaur, astelehena, mobilizazioekin jarraituko dutela adierazi du Arrasateko Askatasunak. Hori horrela, asteburuan egin duten bezala, agerraldia deitu dute 19:00etan, Seber Altube plazan.

Askatasunak azaldu du oso kezkatuta daudela bi gazteen egoerarengatik: "eguen goizaldean atxilotu zituztenetik inkomunikatuta daude, Madrilen, eta senitarteko eta lagunak oso arduratuta gaude jasan ahal izan duten tratuarengatik. Izan ere, aurrekari asko dago inkomunikazio bitartean jasaten diren torturen gainean". Horren harira, inkomunikazioarekin bukatu behar dela gehitu dute.

Gorka Aztiria eta Gaizka Olabarrieta eguen goizaldean atxilotu zituen, etxean, Espainiako Poliziak Auzitegi Nazionalak aginduta. Arrasatearrez gain, Hernanin ere emakumezko bat atxilotu zuten. Hirurei ETAren Donostia komandoari laguntza ematea egozten die Auzitegi Nazionalak. Hain zuzen ere, martxoaren 25ean Donostian atxilotu zituzten hiru lagunekin harremana dutela dio.

UBANE MADERA

Inkomunikazioak dirauen bitartean egunero egingo dituzte mobilizazioak.

BESTE HIRU ATXILOTU KARTELAK JARTZEAGATIK

Beste hiru atxiloketa izan ziren bailaran eguenean. Ertzaintzak hiru gazte atxilotu zituen kartelak jartzen ari zirela. Bata, Arrasaten, Gorka Aztiriaren eta Gaizka Olabarrietaren atxiloketen inguruko informazio kartelak jartzen ari zela. Askatasunak salatu du atxilotzeko unean "ertzainek lurrera bota, jipoitu eta ospitalera eraman" zutela.

Senitartekoak eta lagunak kezkatuta daude bi atxilotuek jasan dezaketen tratuarengatik

Beste biak Bergaran atxilotu zituzten, zapatuan egitekoa zen manifestaziorako kartelak jartzen ari zirela. Hiru lagunek komisarian eman zuten gaua eta egubakoitzean laga zituzten aske epailearen aurretik pasatu ondoren.

ASTELEHENEKO GOIENKARIA

Donostia Ospitalean dago Jon Agirre ebakuntzaren zain, ilusionatuta.

Jon Agirre "ilusionatuta" eguenean lehen ebakuntza egingo diotela eta

M.B.

Eguaztenean eraman zuten Agirre preso aramaioarra Logroñoko espetxetik Donostiara egingo dizkioten ebakuntzetarako beharrezkoak diren zaintzak egiteko. Izan ere, hainbat ebakuntza du Jon Agirrek egiteko, bere osasun egoera oso gaitza da eta: hipertentsio arteriala, hiperkolesterolemia, bigarren tipoko diabetes mellitus-a, bi ornoren foramena txikituta eta artrosia ditu besteen artean. Horrek, besteak beste, mugimendua guztiz eragozten dio. Eguenean eskuineko mokor hezurrean egingo diote ebakuntza –3 cmko higadura du– eta protesia jarriko diote. Ezkerrekoan ere gauza bera egingo diote aurrerago. Agirre ilusionatuta dagoela esan dute haren aldeko plataformakoek: "Zortzi urte zain egon eta gero sinetsi ere ez du egiten ospitalean dagoela eta ebakuntza hain gertu". Hiru senitartekok egunero ikusteko baimena dute.

AINTZANE AGIRRE

120 lagun batu ziren pilotalekuan afaltzeko.

Patxi Cabo preso ohiari afari-omenaldia egin zioten 120 bat lagunek

M.B.

Zapatuan afari-omenaldia egin zioten Patxi Cabo Antzuolako preso ohiari 120 bat lagunek herrian. 20:00etan triki-poteoa egin zuten eta horren ondotik afaria, pilotalekuan. Hala eta guztiz ere, afal aurretik ekitaldi txikia ere izan zen: aurreskua dantzatu zioten Cabori eta hainbat talderen opariak ere jaso zituen. Oparia egin zioten, besteak beste, Batasunak, Etxeratek, Askatasunak eta Irlandatik etorritako sei lagunek. Cabok ere egin zituen hitz batzuk opariak jaso ostean eta omenaldia preso eta iheslari guztiei eskaini zien. "Nik baino beste askok merezi dute omenaldi hau", esan zuen Cabok.

Ekitaldiaren ondotik afaldu egin zuten eta afariaren ostean musika eta pilota partiduak ere izan ziren. Baita suzko erruberak ere.

Iazko azaroaren 19an kartzelaratu zuten eta martxoaren 18an aske geratu zen.

Alegiakoa dugu Pako Larrañaga. Izen bereko 28 urteko filipinar gazte baten osaba eta Migel Larrañaga Filipinetara joandako pilotariaren anaia. Debagoiena ezaguna du, gaztetan Oñatin ikasten aritu baitzen. Baina oraingo bisita beste kontu lazgarriagoek eragindakoa da: bere iloba Paco Larrañaga heriotzaren korridorean dago joandako urte eta bi hilabetetan. Begiak txiki-txiki dituela batera eta bestera ari da osaba ilobaren errugabetasuna zabaltzen eta heriotzatik libratu nahian.

PAKO LARRAÑAGA | PACO LARRAÑAGA FILIPINETAN PRESO DAGOEN GAZTEAREN OSABA

"Irregulartasunez beteriko epaiketa izan zen gure ilobari egindakoa"

Marijo Deogracias

Zure iloba, Paco, Filipinetako espetxe bateko heriotzaren korridorean dago. Urtebete darama han, baina aurretik beste 6 urte egin ditu espetxean, biziarteko kartzela zigorra jarri ziolako Filipinetako Epaimahai Gorenak bi nerabe bahitu, bortxatu eta hiltzeagatik. Pacoren familiakook bere errugabetasunean sinesten duzue eta bigarren epaiketa eskatzen duzue.

Gure iloba, hasteko, ez zegoen hilketak gertatu ziren herrian egun horretan. Sukaldaritza ikasketak direla eta, Manilara joana zen azterketak egitera. Hori horrela izan zela erakusten duten froga mordoa aurkeztu ziren epaiketara, baina, harrigarriena da, bere errugabetasuna erakusten duten froga guztiak atzera bota zirela, bere abokatuari ez ziotela utzi berari galdeketarik egiten epaiketan, bere atxiloketa inolako agindu barik egin zela, eta fiskalak zuen froga bakarrak (ustez erailketan parte hartu zuen testiguetako bat zen) ez zuen inolako loturarik gure ilobarekin; gainera, babestutako lekukoa denez inork ezin izan du bere berbarik kontrastatu. Irregulartasunez beteriko epaiketa izan zen eta horregatik eskatzen dugu bigarren epaiketa bat.

Nola iritsi zen bada polizia zure ilobarengana?

Hori da ba harrigarriena. Inork ez dakigu ze asmo dagoen horren atzetik. Harritzeko moduko kasua da. Eraildako neskatoen herri berekoa dela? Egia esateko bere kontrako adierazpenak egin zituenak ez du inolako loturarik gure ilobarekin; ez dute elkar ezagutzen inondik inora.

Javier Viada Bartzelonako zuzenbide penaleko abokatuak esan zigun epaiketa bertan behera geratu beharko litzatekeela, prozesua ez baita batere ondo eraman; kasua desestimatu beharra dauka epaileak irregulartasunak daudenean.

Eta zuk zeuk ze iritzi duzu?

Traba asko egon dira hedabideekiko eta ikusten da zer edo zer badagoela. Ez dakigu zein zentzutan, politikoa, ustelkeria… Ez dakigu zer den. Bakar-bakarrik dakigu epaiketa ez zela behar zen moduan egin.

Zer egin dezakezue familiakoek? Zer ari zarete eskatzen?

Anaiak, 2004ko otsailaren 4an, goizeko 07:30ak aldera, deitu zidanean esanez "Pako, semea hil egin behar didate" erabat lur jota geratu nintzen; ikaragarria da hori eta zerbait egin behar genuela pentsatu genuen. Politikoengana jotzea pentsatu genuen eta ilobaren historia jakitera eman behar genuela han eta hemen. Mari Karmen Marin diputatua ezagutzen nuen; gainera, berak deitu egin zidan irratian albistea entzun zuenean; hedabideetan gure ilobaren kasua zabaltzen hasi ginen berak lagunduta. Gure anaia, pilotaria zenez, ezaguna izan da eta jendeak elkartasuna adierazi digu hasiera-hasieratik. Ikerketa berria ere egin dugu hainbat abokatu elkarterekin batera: epaiketako dokumentuak batu ditugu eta beste ikerlari batzuei eraman dizkiegu, egindako okerrak agerian utz ditzaten. Horrekin guztiarekin Filipinetako epaileei bigarren epaiketa egiteko arrazoiak badirela erakutsi nahi diegu.

M.D.

Pako Larrañaga, 28 urteko Pacoren osaba, bere ilobaren kasua azaltzen izan zen GOITBn joan zen egubakoitzean.

"Irregulartasunak daudenean, epaileak kasua desestimatu beharra dauka"

"Anaiak 'Pako, semea hil behar didate' esan zidanean lur jota geratu nintzen"

"Filipinetako epaileei 2. epaiketa egiteko arrazoiak badirela erakutsi nahi diegu"

"Diplomaziaren bidea jorratzen jarraituko dugu. Auzia ezagutzera ematen"

Ze aukera dago?

Familiaren abokatuak epaia ezagututa berkontsiderazio mozioa aurkeztu zuen, baina horren erantzunik oraindik ez dago. Aurretik Euskal Herriko, Madrilgo eta Bartzelonako abokatuen elkargoetatik aurkeztutako *Amicus Curie* dokumentuak atzera bota zituzten (NazioBatuen Elkarteak ezarritako Filipinetako eta nazioarteko legeak ez direla bete azaltzen duten dokumentuak). Fair Trials Abroad Britainia Handiko abokatu elkarteak ere aurkeztu du *Amicus Curie* eta oraindik ez du erantzunik jaso. Diotenez, dokumentu horiek atzera bota daitezke, baldin eta hango epaileek ez badituzte eskatzen. Dokumentu horiek aurkezteko arrazoia da, besteak beste, Pacok Filipinetako eta Espainiako herritartasuna duela eta, beraz, bere jatorrizko herrialdeko legeek ere babesten dutela. Hala ere, *Amicus Curie* horiek atzera bota izanak pentsarazten digu haiek ez dutela onartzen bi herritartasun dituela eta, epaia emanda dagoenez, Epaimahai Goren horrek kanpotik etorritako iritzia bere eskumenen kontrako inbasio legez hartzen duela.

Ahaztu egin dute gizaki baten bizitza jokoan dagoela eta, gizaki baten defentsan, gutxieneko duda bat badago, birplanteatu egin behar dela epaia.

Nola dago zuen iloba?

Bera koadrila mutila da, alaia; lider sena ere badauka eta espetxean egin dituen urteetan ere lagun asko egin ditu. Azkeneko urte honetan, ordea, etsitzen hasi da. Bera mutil alaia izan da beti, baina buru jate horiek guztiek, errugabea dela jakinda, animu guztiak galtzera eraman dute. 28 urte ditu eta 19rekin sartu zuten kartzelan. Azkeneko urtea beste modulu baten egin du, heriotzaren korridorera eraman dutenetik. Gurasoei behin eta berriz ari zaie eskatzen "atera nazazue hemendik" eta aditzera ere eman die etsitzen hasi dela.

Bestalde, familia sinetsita zegoen Epaimahai Gorenak jaramon egingo ziela eta epaiketa berrikusiko zela, baina ikusita hain justu Epaimahai horrek heriotza zigorrera kondenatu duela gure iloba Paco, ez dugu ulertzen zer lortu nahi duten erabaki horrekin.

Antzeko aurrekaririk egon da Filipinetan? Ezagutzen duzue antzeko kasurik?

Dakigun gauza bakarra da azkeneko 7 urteetan ez dela heriotza zigorrik gauzatu. Moratoria bat dago indarrean. Baina badirudi, moratoria berrikusiko dutela eta indarrean jarriko dutela heriotza zigorra. Sententzia hor dago eta zerbait gertatuko balitz… Sententziak betetzeko arrisku guztia dauka, moratoria egonik ere.

Ze eskari egiten diezu herritarrei?

www.pacolarranaga.com helbidean badago elkartasuna adierazteko modua, bai eta erakundeei bidaltzeko gutun eredu bat ere, epaiketaren berrikusketa eskatzen. Jakina, diplomaziaren bidea jorratzen jarraituko dugu. Orain dela gutxi, Joseba Azkarraga eta Txema Urkijo izan ziren Madrilen Filipinetako enbaxadorearekin elkarrizketan.

Zu zeu izan zara Filipinetan?

Ez, anaia etorri izan da Alegiara. Hain justu, bere seme Paco atxilotu zutenean geurean zen anaia. Alegiako festak ziren orduan, pentsa ezazu. Eta egun horretan gertatu zen gertatu zena. Badakigu etxean bi neska falta izatea oso gogorra behar duela eta gaitzetsi egiten dugu, baina eskatzen duguna da errudunak epaitzea eta gure ilobarekin egiten ari direna amaitzea.

Anaia harrezkero etorri da berriz?

Ez, semea zaintzen ari da. Espetxea beste uharte baten dago, Manilatik gertu dagoen irlatxo baten eta hara joan-etorrian ibiltzen da. Lur jota daude Pacoren gurasoak.

Apirilak 11: 038 zozketa

Harpidedunen txokoa

Zorionak irabazleoi!

Gaur, apirilak 11, egin den zozketako saridunak azpiko zerrendan datoz. Zu tartean bazaude, zorionak!
Asteleheneko Goienkaria-ren harpidedun bazara, adi:

Zeu izan zaitezke hurrengo zozketako irabazleetako bat!

BALDINTZAK

- *Asteleheneko Goienkaria*-ren harpidedun izatea da baldintza bakarra.
- Irabazleekin gure harpidetza saila jarriko da harremanetan.

Harpidedun egiteko:

902 36 38 51
Astelehenetik egubakoitzera, 09:00etatik 21:00etara.

Eskaintza:

Harpidetza kuota, 35 euro
2005 osoko harpidetza kuota: 35 euro.

ASTELEHENEKO **Goienkaria**
astelehenean, **aste bukaera osoa**

Hauek dira aste honetako sarien irabazleak.
Zure izena zerrendan badago, ZORIONAK!

Juan Martin Elexpururen BERGARA ALDEKO HIZTEGIA. Leintz-Aramaio, Oñati eta Eibar inguruko berbekin osatuta. (Bi hiztegi, saridun bakoitzarendako bat).
- Domingo Jauregi (Bergara)

ISTILU etxeko neskendako bi kamiseta.
- Imanol Ugarte (Oñati)
- Bittor Kortabarria (Aramaio)

EIBAR - XEREZ futbol partidurako sei sarrera (saridun bakoitzarendako bi).
- Mikel Jauregialzo (Oñati)
- Amalia Zarate (Arrasate)
- Felix Altube (Aretxabaleta)
- Juan Lezeta (Antzuola)
- Hemen kafetegia (Arrasate)
- Juan Jose Aranzabal (Arrasate)

Apirilaren 18ko sariak

- Bi gonbidapen FLORIDA-GURIDI zinemetara joateko eta beste bi gonbidapen Gasteizko San Prudentzio kaleko BOCATTAn bi menu jateko (saridun bakoitzari bina emango zaizkio).



Kike Amonarrizen
'888 TXISTE' LIBURUA
Argia argitaletxearen eskutik



FIMA 2005 | ZARAGOZAN EGIN DUTE, HILAREN 5ETIK ZAPATURA BITARTEAN ETA 500 ENPRESA INGURUK HARTU DUTE PARTE

Goizper lantegiak saria jaso du Zaragozan, nekazaritza makinariako nazioarteko ferian

Nabarmentzeko nobedadeen lehiaketan bi sari jaso ditu Goizperrek Zaragozako FIMA 05 ferian

Monika Belastegi

PATXI OLABARRIA

Irudian, Iñigo Formariz, estaturako salmenta burua standera hurbildutako erabiltzaile batzuei azalpenak ematen.

Zaragozan Nekazaritza Makinariako Nazioarteko 33. Feria (FIMA) egin dute egunotan. Martitzenean hasi eta zapatura bitartean nazioarteko –20 bat herrialdetako– 500 enpresa inguruk hartu dute parte ferian. Ibarreko ordezkaririk ere izan da Zaragozan; Antzuolako Goizper kooperatiba, hain justu ere.

Goizperreko ordezkariek azaldu dutenez, feriara joaten dira, batik bat, nekazariarekin hartu-eman zuzena eduki ahal izateko: "Guk egiten ditugun gailuen erabiltzaileekin aurrez aurre egon ahal izateko aukera ematen du feriak eta horixe da hona etortzeko arrazoi nagusietako bat. Nekazaritza arloak gure makinez zer pensatzen duen jakiteko aukera ematen digu; baita tresna edo makina jakinekin izan ditzaketen arazoak konpontzeko ere. Erabiltzaileek euren lanerako erabiltzen dituzten tresnak nork egiten dituen ikustea positiboa da".

SARI BIKOITZA

Saritua ere izan da Goizper ferian. Nabarmentzeko nobedadeen lehiaketan, bi osagarrirengatik sari bana jaso du: motxilako ihinztagailuaren presio erregulatzailearengatik eta ihinztagailurako sektore akzesorioarengatik.

Eroskik 200 supermerkatu eta 32 hipermerkatu irekiko ditu 2008 bitartean

A.G.

Eroskik 2.000 milioi euroko inbertsioa egingo du 2008 urtera bitartean plan estrategikoan zehaztu duenez. Kopuru horretatik %80 elikaduraren negoziora bideratuko du eta %20 dauzkaten dendak modernizatzeko eta dibertsifikaziorako erabiliko ditu (lurrindegiak, kirol-dendak, bidaia agentziak eta liburu dendak). Elikaduraren arlora bideratuko duten kopuruaren erdia supermerkatu berriak zabaltzeko erabiliko dute eta beste erdia hipermerkatuak zabaltzeko. Hori horrela, 200 supermerkatu zabaltzeko asmoa dute, 50 urteko, eta 32 hipermerkatu, zortzi urteko.

Bestetik, plan estrategikoaren barruan, salmenten helburua da urteko %13 haztea. 2004ko balantzeari dagokionez, 5.582 milioi fakturatu dituzte.

ARTXIBOA

2.000 milioi euroko inbertsioa egingo dute salmenta gune berriak zabaltzeko.

Labur

MCCk berregituratu egingo du 2006rako industria taldea

Hiru urteko lanaren ondoren, 2006aren hasierarako gertu izan nahi du MCCk industria alorreko egituraketa berria. Horrela, mailakako banaketa bertan behera lagako dute eta zortzi atal izatetik hamaika izatera pasatuko dira taldeko 72 industri kooperatibak: etxea, automozioa, osagaiak, eraikuntza, Ulma, lanabesak, Hobelan, ekipamendu ondasunak, makina erreminta, industria ekipamendua eta enpresa zerbitzua. Atal bakoitzak, ordea, estatutu propioa izango du egitura berriarekin. Aldaketok eraginkortasuna handitzea dute helburu.

Europako Comenius 2.1 hezkuntza proiektuko kideak HUHEZIn

Gaur, astelehena, hasi eta eguaztenera bitartean batzarra egingo dute HUHEZin Europako Comenius 2.1 hezkuntza proiektuko kideek. Hamabost lagun batuko dira Eskoriatzako unibertsitatean: galestar bi, hiru norvegiar, hiru lituaniar, irlandar bat eta hiru euskaldun. Talde hori *Terra: Inter cultural curriculum* izeneko proiektua lantzen ari da. Proiektu horrek curriculum eraginkorrak suspertu nahi ditu komunitate elebidunetan, batik bat, hizkuntza minorizatuak dauden herrialdeetan. Bihar, martitzena, Angeles Iztueta Hezkuntza sailburuaren bisita jasoko dute.

Enpresa orrialde honen babeslea:

MEMESA
INDUSTRIA HORNIDURAK

ARRASATE
TEL.: 943 712 425
FAXA: 943 712 297

ARETXABALETA
TEL.: 943 712 411
FAXA: 943 712 004

OÑATE
TEL.: 943 718 080
FAXA: 943 718 045

SEIN
grupo•taldea
Euskadiko erreferente nagusia
industria horniduran

Albiste izango da

ARRASATE | DIPUTATU NAGUSIAK AURKEZTUKO DU

Epele-Kaskonategi errepidearen proiektua aurkeztuko dute gaur

Epele eta Kaskonategi lotzen dituen errepidea zabaltzeko lanen proiektua aurkeztuko dute gaur, astelehena, Udalean. Aurkezpenean egongo dira: Gipuzkoako Diputatu Nagusi Joxe Joan Gonzalez de Txabarri, Bide Azpiegituretarako diputatu Javier Zuriarrain eta Arrasateko alkate Ignazio Lakuntza. Epeleko lotunetik Kaskonategiko biribilgunera (Hiper Eroski aurrean) arteko errepidea zabaldu nahi dute. Autobideak ekar ditzakeen auto pilaketak ekiditea da helburua, lau erreietako errepidea eginez. Tarteak 860 metro ditu eta lanen aurrekontua 2,5 milioi euro da.

ESKORIATZA | HILAREN 11TIK 24RA BITARTEAN

Farmaziaren gaineko jardunaldiak astean Ibarraundi museoan

Farmaziaren inguruko jardunaldiak hasiko dira gaur Ibarraundi museoan. Hitzaldiak eta erakusketa egongo dira jardunaldion barruan. Gaur, astelehena, irekiko dute erakusketa antzinako farmaziaren inguruan, 16:00-19:00 ordutegian. Hitzaldiei dagokienez, gaur egingo dute lehenengoa. *Sendabelarren propietateak eta tratamenduak. Euskal Herriko tradiziozko medikuntza* izango du berba gai Alfredo Elortzak, 18:30ean. Hilaren 20an, berriz, *Farmaziaren historia, botika 1.000 gaien bitartez* izeneko hitzaldia egingo du Antonio del Barrio Marinek, 18:30ean.

Horrekin batera, eguenean, hilak 14, botikak prestatzen erakutsiko die Alfredo Elortzak ikasleei.

DEBAGOIENA | ALDUNDIAK ANTOLATU DITU

Udalekuak eta udako ekintzak zazpi eta 17 urte bitarteko gazteendako

Gipuzkoako Foru Aldundiak udarako gazteendako ekintzak antolatu ditu aurten ere. 7 eta 13 urte artekoendako udalekuak antolatu ditu; 14 eta 17 urte artekoendako, berriz, udako ekintzak. Aste bete, hamar egun edo hamalau eguneko egonaldiak izango dira eta kanpalekuen, hizkuntza egonaldien edo abenturako ekintzen artean aukeratu ahalko da. Txikienak Euskal Herrian egongo dira; gazteak, estatuan barrena ere bai. Umeen kasuan apirilaren 13ra arte dago zozketan izena emateko epea eta gazteen kasuan apirilaren 29tik maiatzaren 10era arte. Izena eman daiteke: Arrasate, Bergara eta Oñatiko gazte informazio zerbitzuetan eta Aretxabaleta eta Eskoriatzako kultura etxeetan. *www.gipuzkoa.net/oporraldi* helbidean ere eman daiteke izena.

OÑATI | GAUR, 20:00ETAN, OÑATIKO INSTITUTUAN

Afektatuendako bilera deitu du Oñatiko Hiltegia Bizirik taldeak

Oñatiko Hiltegia Bizirik plataformak harakinei eta baserritarrei zuzendutako bilera deitu du. Debagoieneko, Debabarreneko eta Goierriko baserritar eta harakinei dago zuzenduta eta gaur, astelehena, izango da Oñatiko institutuan (unibertsitate zaharraren ondoan), 20:00etan.

Oñatiko Hiltegia Bizirik plataformako kideek adierazitakoaren arabera, batzarraren helburua da hiltegiaren gainean landu duten proposamenaren berri ematea eta bertaratutakoen iritziak jasotzea.

DEBAGOIENA | ARIZMENDIK ANTOLATU DITU

Seme-alabekiko arazo eta kezkak argitzeko hitzaldi sorta asteon

Arizmendi ikastolako Guraso Elkarteak hitzaldi sorta antolatu du. Helburua da gurasoek, aiton-amonek zein zaintzaileek umeekin izan ditzaketen arazo eta kezkak argitzen laguntzea. Horretarako hiru berbaldi antolatu dituzte. Gaur, astelehena, *Pentsamolde baikorra-jarrera baikorra* izenekoa jorratuko dute, 18:00etan, Gazteluondon; gurasoei zuzenduta dago. Azkeneko biak, eguenean, apirilaren 14an, izango dira. Bata, 15:00etan, Basabeazpin; *Telebistaren eragina haurren garapenean* gaia landuko dute aitona-amona eta zaintzaileendako. Bestea, DBHko gurasoei zuzenduta dago eta *Gaueko irteerak* gaia landuko dute 18:00etan, Almenen.

Hitzorduak

FEDEDUNEI ZUZENDUTAKO JARDUERAK ANTOLATU DITU ELIZAK | Nagusiendako gogojarduerak eta otoitza lantzeko topaketak daude aukeran

Fedea sendotzeko bi ekintza antolatu dituzte . Batetik, Arantzazuko frantziskotarrek hirugarren adinekoendako gogojarduerak antolatu dituzte. Hiru aukera dago: apirilaren 17tik 23ra eta maiatzaren 22tik 28ra, euskaraz; eta maiatzaren 8tik 14ra, gaztelaniaz. Izena emateko, deitu 943 78 13 15era.

Bestetik, otoitz pertsonala lantzen hasteko topaketak deitu ditu Leintz Bailarako Pastoral Barrutiak. Eguaztenero izango dira Eskoriatzan, Itarte etxean. Edozeinek parte har dezake. Izena emateko, bidali mezu bat *gaztekristauak@euskalerria.org* helbidera.

ANTZUOLA |

• Independentzia Eguneko bazkarirako txartelak

Independentzia Eguneko bazkarirako txartelak salgai daude Mox, Larrea eta Surpe tabernetan, 10 eurotan. Hilaren 16an ospatuko dute Independentzia Eguna.

ARETXABALETA |

• Hastapen mailako autoen mekanika ikastaroa

Autoen mekanika ikastaroa antolatu du Loramendik, oinarrizkoa eta edozeinendako modukoa. Apirilaren 18tik 20ra bitartean izango da. Izena emateko, deitu 943 77 09 70 telefono zenbakira.

ARRASATE |

• Abaroa etxekoek Burgosera irteera antolatu dute

Apirilaren 20an egingo dute irteera hori. Burgos inguruak bisitatu, katedrala ikusi eta jatetxe baten bazkalduko dute. Izenemate epea etzi, eguaztena, bukatuko da, Abaroako bulegoan. Txartelen zozketa hilaren 18an, astelehena, egingo dute.

• Txatxilipurdi aisialdi elkartearen hainbat ohar

Txatxilipurdi elkarteak San Miguel de Aras (Kantabria) herriko aterpetxe baten egonaldia antolatu du. Apirilaren 22tik 24ra bitartean egongo dira han. DBHkoei zuzendutako ekintza da, eta izenematea zabalik dago apirilaren 1era bitartean Txatxilipurdiren egoitzan. 75 euro da. Argibide gehiagorako, deitu 943 77 17 39 telefonora. Bestetik, bertso udalekuak antolatu dituzte Araban, LHko ikasleendako, uztailerako. Azkenik, uztaileko udalekuetarako begirale izan gura dutenek zabalik dute izenemate epea.

BERGARA |

• Musika Eskolak izenemate epea zabaldu du

Ekainera bitartean dago matrikulatzeko aukera, euren bulegoan, astegunetan, 15:30-19:30.

• Begiraleak behar dituzte uztaileko udalekuetarako

Izenemate epea zabalik dago hilaren 22ra bitartean, Xipizaro ludotekan, 17:00-19:00. Telefonoa da 943 76 23 76.

• 27an jaiotakoek bazkaria egingo dute laster

Hilaren 23an batera bazkalduko dute Zumelagan, 14:00etan. Izena emateko, sartu 15 euro Euskadiko Kutxan zabaldu duten kontuan.

• 37an jaiotakoen bazkarirako izenemate epea, zabalik

Txarrantxa jatetxean bazkalduko dute apirilaren 23an. Izena emateko, jo Kortazarrera. Apirilaren 18a da mugaeguna. 20 euro aurreratu behar da.

DEBAGOIENA |

• Gorputz edo zentzumeneko gutxituendako oporraldiak

Gutxituendako opor eskaintza prestatu du Elkartu gutxituen elkarteak. Maiatzetik urrira bitartean, zortzi bidaia dago aukeran, Espainiako kostaldean gehienak, eta baita Parisen eta Herbehereetan ere. Argibideetarako, deitu 943 31 67 70 telefonora.

OÑATI |

• Erretzeari uzteko ikastaroa antolatu du Udalak

Apirilaren 19tik maiatzaren 7ra bitartean izango da, zazpi saiotan. Izenematea zabalik dago hilaren 15era arte, eta 50 euro da. Argibideak, Ongizate Sailean (943 03 77 00, Ainhoa).

• Erretzeari uzteko ikastaroa antolatu du Udalak

Gai zehatzen gaineko zenbait ikastaro eta Internet oinarrizko ikastaroa antolatu ditu KZGuneak apirilerako. Izenematea, KZGunean (kultura etxean) edo 943 71 83 20 telefono zenbakian.

• 81ean jaiotakoek bazkaria izango dute apirilean

1981ean jaiotakoek kinto bazkaria egingo dute apirilaren 30ean, eta izenematea hilaren 18a baino lehen egin behar da. Horretarako, sartu 30 euro Euskadiko Kutxako honako kontuan: 3035 0002 13 0020042837.

Iritziak

Isilpekoak

943 76 92 71

goienkaria@goiena.com

Zerbait esateko daukazula? Deitu edo idatzi e-posta. Zeri txaloak, zeri txistuak... Eta sail honetan aterako ditugu zure komentarioak.

• Aramaioko ez solidarioei deia

Aramaioko Udalak, irisgarritasun planari jarraituz, udaletxeko sarrera egokitu du eta eskailerak igotzeko arazoak dituenentzako arrapala bat jarri du. Honen haritik, irakurle batek txistua bidali digu herrian autoa behar ez den lekuan lagatzen dutenentzako. Berak dioenez, udaletxe aurrean egin duten arrapalako sarrera oztopatzen dute auto gidariek, pare parean autoa lagatzen dutelako. Hortaz, gure irakurleak deia egiten die auto gidari horiei "arrapala erabili beharra daukanak nahikoa arazo ditu berez, eta ez du zertan auto gidari ez solidarioen erruz bestelako trabarik jasan behar. Gutxieneko errespetua, mesedez!".

• Bergarako autobus geraleku berria dela eta

Aste Santu aurretik estreinatu zuten autobus geralekua Bergaran eta dagoeneko erabiltzaileen kexak jaso ditugu erredakzioan. "Errepidez inguratutako autobus geralekua jarri digute Bergaran. Oinezkoak inolako lehentasunik ez duen inguruan jarri dute autobus geralekua eta hori gutxi balitz, errepidea zeharkatu beharra dago, edozein norabidetik zatozela ere, geralekura iristeko zein bertatik ateratzeko. Eta, kontua zein da? Ba, ez dagoela zebra biderik! Oinezkook, lehen arrisku gutxi eta errepidea zeharkatu behar dugu Bergarako bidegurutzerik erabilienean inolako oinezkoentzako pasabide barik!".

• Euskal Herriko itzulia eta Oñatiko loreak

"Oñatiko Udalak lorez apaindu zituen txirrindulariek zeharkatu zituzten bide bazterrak, telebistan aterako zirelakoan, baina ETBko helikopterotik, antza, ez zituzten ikusi, eta guk ere ez!" dio oñatiar batek.

Sarean harrapatuta

Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak

Datorren domekan izango dira Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak. Kanpainan bete-betean sartuta daude alderdi guztiak, eta kalean ere Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeen gainean hitz egiten du jendeak. Legebiltzarrerako hauteskundeetan bozkatuko duzu? Hori izan da *Goiena.net*-en eztabaidarako jarri duten galdera. Ilegalizazioak, EHAK, Aralar eta Ibarretxe dira erantzunetan gai nagusi.

BEHARREZKOA DA BOZKATZERA JOATEA

Nik uste dut beharrezkoa dela hauteskunde hauetan bozkatzea eta, nik behintzat, euskalduna naizen aldetik, Ibarretxeri emango diot nire botoa!

Nik uste dut, ondo joan zaigula orain arte, bai ekonomian eta bai maila sozialean eta horrela jarraitzea espero dut! Gainera, Espainia aldetik (PP eta PSE batu egingo dira) daukagun mehatxuarekin...

Atxabaltarra / www.goiena.net

EHAK ETA BATASUNA EZ DIRA BERDINAK

EHAK ez da ez Batasuna ez Aralar ez Aukera Guztiak. Demokrazia falta ageri den hauteskunde hauetan bere gain hartzen du besteen programa. Baina horrek ez du esan nahi berdinak direnik. Abertzale eta ezkertiarrak badira, baina nik uste dut ez direla berdinak. Hala ere, ezker abertzalea ordezkatzeko aukera paregabea da oraingoa, baita ezkertiar edo abertzaleen aukera ere.

Gauzak argi / www.goiena.net

ABERTZALE GUZTIAK ELKARTZEKO GARAIA DA

Ilegalizazioa putakeria ederra izan da Euskal Herriarentzat. Baina, nire ustez, kaltetuak ez gara izan ilegalizatuak, alde batetik bai, baina biktimismo hutsa erabili da egunero babesteko (irainak, erasoak...).

Ez naiz sartuko sekula politika aktiboan, baina garaia da abertzale denak elkartu eta Euskal Herria bultzatzeko eta ez puskatzeko.

Hipokresia / www.goiena.net

DEMOKRAZIARIK EZ HAUTESKUNDEETAN

Bozkatzea beharrezkoa da hauteskunde hauetan. Badakigu hauteskunde hauetan dagoen demokrazia eza dagoela: Batasuna eta Aukera Guztiaken ilegalizazioa eta EHAK alderdiaren ilegalizazioa ere bilatu nahi dute. Nik bozkatzea beharrezkoa dela ikusten dut, hori bai, abertzale eta/edo ezkertiar sentitzen garenok badugu bozkatzeko aukera.

Nik argi daukat nire bozka: EHAK, eta esan behar dut ez naizela Batasunakoa kontsideratzen. Baina, uste dut Espainiako demokrazia ustelarentzat erreflexionatzeko balioko duela nire botoak.

Kanpotar / www.goiena.net

ZERK EZBERDINTZEN DITU ARALAR ETA EHAK?

Nik uste dut Aralarrekoak satanizatzea ez dagoela batere ondo, eta hau ez du esaten Aralarri botoa emango dion batek. Ez dut hemendik Aralarrenganako botoa eskatuko, baina hobe da Aralar PSOE edo PP baino, ez? Azken finean, Batasuna, Aukera Guztiak edo EHAK dena delakoak zertan ezberdintzen dira Aralarrengandik? ETAren borroka armatua kondenatzen duela Aralarrek? Egia da, baina nik dakidala EHAK alderdiak giza eskubide guztiak errespetatzen ditu eta mota guztietako biolentzia gaitzesten dute. Hortaz?

Lasai / www.goiena.net

EZKER ABERTZALE GUZTIA ELKARTU

Nik uste dut ezker abertzale guztia EHAKren alde jarri beharko litzatekeela, eta Aralarrek (nahiz eta Aretxabaletan gauza larregi ez egin, ez noa kritikatzera. Izan ere, ezkertiar eta abertzaleak dira eta orain ez da Aretxabaleta eztabaidako kontua) eta Batasunak EHAKren aldeko botoa eskatu beharko lukete. Baina, horrez gain, alderdi abertzale denak gobernuan elkartu egin beharko lirateke, hori baita abertzale gehienok nahi duguna.

Abertzaleok / www.goiena.net

Halaxe erantzun digute

Gerry Adamsek indarkeria lagatzeko eskatu dio IRAri. Horrelakorik gertatu daiteke gurean orain?

?

IÑAKI IRIGOIEN | BERGARAKO IRLANDARRA

Teorikoki euskaldunek Irlandara begiratzen dute, baina momentuz egoera erabat desberdina da. Han Sinn Fein politikan sartzea eragin dute, parlamentuetan ardurak hartzea... Hemen kontrakoa egiten ari dira: ilegalizazioekin ari dira. Beraz teorikoki bai, baina aldaketa behar da.

EAMON FAGAN | IRLANDAKO ARRASATEARRA

Irlandarrendako adierazpenok bi esangura izan ditzakete: hauteskundeetarako botoak eskuratzeko asmoa edo bake prozesurako une historikoa. Bigarrena sinestu nahi dut eta ausarta dela deritzot. Bestalde, iradokizunek aldaketak sorraraz ditzakete MLNVan, IRAren erantzuna positiboa bada.

GABI LAZKANOITURBURU| NAZIOARTEKO GAIETAN ADITUA

Duela hamaika urtetik autodeterminazioa oinarri duen prozesu an, su-etenari eutsi dion erakunde armatu bati, bide politikoak eta demokratikoak jorratzeko azter dezan eskatzea posible litzateke. Adamsen alderdia ilegalizatuz eta manifestazioen aurka indarkeria erabiliz halakorik bai Irlandan?

FELIX IRIARTE | KAZETARIA

Egungo egoeran, epe motzean, ezinezkoa da. Gauza bakoitzak bere denbora eskatzen du eta hemen ez gaude denbora horretan. ETA eta Espainiako gobernuaren arteko harremana egon behar da emaitzak egoteko, baina lehenengoa desblokeatze prozesua da, bestea iritsiko da.

Egunkarietako harribitxiak

INFERNUKO KOLONIA
40 urte zigorgabetasunean egon eta gero atxilotu egin dute Paul Schaefer. Haren biktimek pederasten erregea deitzen diote: berak eta Chilen sortu zuen instituzioak 10.000tik gora salaketa dituzte. Handik alde egitea lortu zuten kolono apurrek justizia eskatzen dute. Ihes egin zuten horietako batzuen testigantzak jaso zituen atzo *El Semanal*ek.

'El Semanal'
2005-04-10

ESPAZIOA, NEGOZIOA
Espazioaren sektoreak indar berria hartu du Europan zenbait misioren arrakastari esker, eta esplotazio zientifikoarekin batera eskutik helduta doa industria oso bat. Bada euskal enpresarik ere zeregin horretan.
Hegan, EAEko Aeronautikako eta Espazioko Clusterraren datuek diotenez, 20 milioi euroko fakturazioa lortu zuten iaz Clusterraren bazkide diren enpresek espazioaren alorretik. Enpresa handi eta ez hain handiak dira: Sener, Novalti, Spasa, Aratz, Astorkia... Miñaoko Aeronautika Teknologien Zentroan ere aritzen dira sektorerako ikerketan, eta Miramongo Inasmet zentro teknologikoak hainbat proiektutan hartu du parte. Halaxe azaltzen zuen atzo *Berria* egunkariak Egitura gehigarrian.

'Berria'
2005-04-10

Tira, tira...

Montxo 'Berria' | 2005-IV-11

Zorroztailea

Ur-bazterretik batela

Moñoñotasuna, zurikeria, bertso-kitschlaritza, biktimismo orokortua, euskararen kalonjeen (uler bedi: irakurle militanteen) nagusitasuna, plastidekor-idazleak, malditismo faltsuaz mozorrotutakoak, laurogeiko hamarkadaren (eta aurreko ia guztien) nostalgia... Horiek guztiak gaitzesten ditugu eta hemen beldurrik gabe salatuko.

'Volgako bateriak' |
2005-04-03

Gerardo Markuleta

Manifestu batek –izan politiko, artistiko edo literarioa– ezinbestekoa du erasokortasun apur bat, gutxieneko eragina izan nahi badu. Oraingoan, adibidez: norbere literaturaren egoera gustuko izan ez, eta aldaketaren bat eragin nahi duenak kolpe handi samarra jo behar du mahai gainean lokartuak iratzarriko baditu eta bere buruari begira liluratuta dagoena beste norabait begiratzera behartuko badu.

Ohitura ere bada, literaturaren historian, belaunaldi berriak aurreko belaunaldiko idazleak eta haien lanak gupidarik gabe jipoitzea: norbaitek esango du gero beren literaturari koska bat estuago eragin ziotela; beste norbaitek azalduko du, ordea, penduluaren pisua beste aldera bidali baino ez zutela egin (hots, momentuz aldaketa eragin bai, baina bestaldera gertatu ohi den hurrengo mugimenduari indar handiagoa eman ere bai).

Ez dakit, baina, erasoa ote den gure garaiak bereziki eskatzen duena. Literaturaren esparruan ere ez ote da ezinbestekoa elkarbizitza; ez ote da behar horretaz ohartzea lehendabiziko pauso ezinbestekoa. Esparru txikiegia da gurea (leku gutxi liburu denda, irrati-telebista, egunkari-aldizkarietan; irakurle, jendaurreko emanaldi, itzulpen eta antologia gutxitxo). Ez da ikuskizun ederra talentu apur bat dutenak talentu apur bi daukatenekin elkarrekin ukondokadaka ikustea.

Kritika zintzo eta zehatzak nahi genituzke: hau honegatik da moñoño, zuri, plastidekor, kits edo nostalgiko. Ongi etorri, batelariok, literat-uraren hidrografiara, arraun on egin. Baina, faborez, nahigabeko zipriztin larregi ez eragin.

"Ohitura ere bada, literaturaren historian, belaunaldi berriak aurreko belaunaldiko idazleak eta haien lanak jipoitzea"

"Kritika zintzo eta zehatzak nahi genituzke: hau honegatik da moñoño, zuri... Baina nahigabeko zipriztinik ez eragin"

Egunkarietan irakurri dugu

'Deia'

GERRAK JARRAITZEN DU

Sadam Husein bere postutik kendu zutela bi urte bete diren honetan, okupazio militarra exijitu duten manifestazio jendetsuak izan dira; baita 30 hildako ere.Horrek agerian lagatzen du Bushek agindutako inbasioaren inmoraltasuna eta ilegaltasuna. Irakeko herritarrak dira gezurrean oinarritutako gerraren biktima nagusiak.

Editoriala
2005-04-10

'El Mundo'

BI URTE, ETA GERRAK JARRAITZEN DU

Duela gutxi guztiok poztu ginen hauteskunde demokratikoak izan zituztelako Iraken (orain arte inbasioaren garaipen bakarra). Hori horrela izanda ere, ezin dugu ahaztu Irakeko gerrak, ofiziala edo ez, hildakoak eragiten dituela oraindik. Benetako demokrazia –botoa ematea baino askoz gehiago da– oraindik urrun dago.

Editoriala
2005-04-10

'El Diario Vasco'

BEREZKO GOBERNUA IRAKEN

Eramandako prozesuarekin egonkortasun demokratikorako atea zabaldu du Irakek, eta nahiz eta bi hilabete oso baliotsu galdu dituen, hasierako urrats erabakigarriok lasaitasun eta inteligentzia handienarekin eman dituzte. Hemendik aurrera bertute politiko horiek mantentzea beharrezkoa izango da.

Editoriala
2005-04-10

'Berria'

BESTELAKOA

Zeru mediatikoan ez da ilargirik faltako ahoa zabaldu eta begiak itsutu nahi dituen ororentzat: errenkadan datoz, Joan Pauloren ondoren, Camila eta Charles, Rainiero eta Albert eta beste hainbat santu. Eta hauen atzetik hauteskunde izarrak ere hor dira. Aginduko digute telebista zuzendariek zer eta nor loriatu eta berriro ere guk amen.

Karmelo Landa
2005-04-10

ASTELEHENEKO Goienkaria

Zuzendaria Eneko Azkarate
Erredaktore burua Monika Belastegi
Erredakzioa Marijo Deogracias, Jokin Etxebarria, Ion Unamuno, Jasone Zabala eta Larraitz Zeberio.

Jatorrizko diseinua Goio Arana | **Maketazioa** Imanol Soriano | **Maketazio laguntzailea** Kepa Martelo | **Testuen zuzenketa** Karmele Etxabe | **Publizitate arduraduna** Gotzon Arzelus | **Diseinu arduraduna** Iñaki Iturbe | **Harpidetza eta banaketa arduraduna** Marta Leturia | **Administrazio arduraduna** Agurtzane Gaintzarain

Goiena Komunikazio Zerbitzuak
Presidentea Estepan Plazaola
Zuzendari nagusia Iñazio Arregi

ASTELEHENEKO GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen orri hauetan adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

KIROLA

• Urduluzi 27-38 irabazita, igoera faseko azkenengo bi partiduak irabazi ditu AGR Arrasatek | 18
• Eskoriatzak beheko postuetatik irteteko partidu garrantzitsua irabazi zuen Erandioren kontra | 19

Egubakoitzean Oñatik Euskal Herriko Itzuliaren azken bi sektoreak hartu zituen | 20-21

ARGAZKI PRESS

Yeste azkenean hamaikakoan egon zen eta bigarren gol ikusgarria sartu zuen. Bere jokoak gorabehera asko dituen arren, Athletic zaleen ikusmira sortzen duten golak sartzen ditu.

ATHLETIC I JOKO ALDETIK EZ ZUEN MAILA HANDIRIK ERAKUTSI, BAINA ATERA BEGIRA ABILEZIA GEHIAGO ERAKUTSI ZUEN

Euskal futbolaren festan Athleticek amaitu zuen irribarrearekin

Jon Unamuno

Vila-realen kontra jasandako porrotaren ondoren, botikarik onena hartu zuen taldeak. Realari irabazteak beti ematen du gozamen handia, eta 3-0 irabazita gehiago

Partidu bereziak izaten dira Athleticek eta Realak jokatzen dituztenak, eta zapatuan beste behin ere hori ikusi genuen. Athleticek ez zuen partidu polita jokatu, baina Realaren zorigaiztoko jokaldi batek (Ezkerrok ondo bilatuta), Yesteren falta jaurtiketa ikusgarri batek eta azken minutuan Tikok, nork bestela, sartutako golak, markagailua puztu zuten.

Horrelako partiduak zatarrak eta gogorrak izaten dira gehienetan. Area batetik bestera momentu askotan ibili ziren, baina irizpide askorik gabe. Yestek behin baino gehiagotan bere postua atzeratu zuen eta jokoari lasaitasuna ematen saiatu zen, baina Mikel Alonsok gertutik defendatu zuen Gallartakoa. Realak ez zuen gauza handirik egin eta defentsan ez zuten arazo asko izan. Hala eta guztiz ere, urduritasun momentu batzuk ikusi izan ziren eta etorkizun batean zerbait handia egin nahi baldin bada, akats horiek konpondu egin beharko dira.

URZAIZ EDO LLORENTE

Azkenaldi honetan bi jokalari hauek askotan konparatu izan dira. Euren ezaugarriak oso antzekoak dira. Zaleen artean gustuak banatuak daude: batzuk tuterarraren alde agertzen dira eta beste asko errioxarraren alde daude. Aurrealdean erreferentzia gizon moduan biek balio dute eta Ezkerro edo Etxeberriaren abilezia eta abiadurarekin oso moldagarriak dira. Datozen partidu garrantzitsuetan ikusi eginbehar Valverdek zeinen alde egiten duen.

Betis dago Athleticen miran. 10 egun gelditzen dira Sevillan jokatuko den partidurako. Zapatuan jokatutako partiduak taldeak bere buruaz duen irudia hobetzeko balio izan zuen eta ildo horretan jarraitu beharko dute. Ligan? Beste taldeen emaitzen arabera sartu behar luke UEFAko lehian. Oso zail dute, baina ez da ezinezkoa.

• UEFA-RENGATIK BORROKATU BEHARKO OTE DU ATHLETICEK?

HILARIO ETA PAGALDAI | BERGARA

"Athleticek Betis izan beharko luke helburu bakar moduan; Koparen bila jo behar dugu"

Hilario Realekoa da eta Pagaldai Athleticekoa, horixe izaten da partidu hauen xarma. Galderari dagokionez, argi dute zer esan: "Athleticek Betis izan beharko luke helburu bakar moduan, Koparen bila jo behar dugu".

FELIX IDIGORAS | BERGARA

"Taldea nekatuta dago eta UEFA urrun dago"

"Taldea nekatuta dago eta UEFA urrun gelditzen da. Derbyetan indarrak ez dauden tokitik ere ateratzen dira", adierazi zuen.

ALBERTO ETA CHARLY | BERGARA

"Polita izango litzateke, baina zaila ikusten dugu Athleticek UEFAgatik borrokatzea"

"Polita izango litzateke, baina zaila ikusten dugu Athleticek UEFAgatik borrokatzea. Gure ustez, denboraldi honetako lehentasuna Kopa da. Finalean kokatzeko aukera paregabea du eta ez du alferrik galdu behar".

JOKIN, ANDONI ETA KEPA | BERGARA

"UEFAn sailkatzea zail dauka Athleticek, borrokan talde asko daude eta"

"UEFAn sailkatzea zail dauka Athleticek, borrokan talde asko daude eta. Hala ere, golak sartzen dituen taldea da eta denboraldi amaieran hori garrantzitsua da. Guri gustatuko litzaiguke euskal talde bat Europan egotea", esan zuten.

BEÑAT, MIKEL ETA MAITE | BERGARA

"Zapatuko jokoa egiten badute UEFAn sailkatu egingo da Athletic"

Zapatuan partidu ona egin zutela irizten zuten hiru gazte hauek: "Zapatuko jokoa egiten badute UEFAn sailkatuko da Athletic. Puntu asko lortu beharko ditu lehenengo sei postuetan sartzeko, baina merezi du eta sartuko da".

Emaitzak eta sailkapenak / Espainiako Liga Txapelketa

EMAITZAK

Getafe-Albacete	1-0
Numantzia-At. Madril	1-0
R. Madril-Bartzelona	4-2
Osasuna-Racing	1-0
Athletic-Reala	3-0
Espanyol-Sevilla	1-3
Mallorca-Zaragoza	0-2
Betis-Levante	2-2
Deportivo-Vila-real	1-1
Valentzia-Malaga	2-2

HURRENGOAK

Racing-Athletic
Vila-real-Betis
Reala-Deportivo
At. Madril-Espanyol
Levante-R. Madril
Mallorca-Valentzia
Bartzelona-Getafe
Sevilla-Osasuna
Zaragoza-Numantzia
Albacete-Malaga

SAILKAPENA

	Puntuak	J	I	G	B	GA	GK
1.**Bartzelona**	**69**	31	21	4	6	59	25
2.**Real Madril**	**63**	31	20	8	3	55	28
3.**Sevilla**	**52**	31	15	9	7	37	34
4.**Vila-real**	**50**	30	14	7	8	51	26
5.**Betis**	**50**	31	13	7	11	52	42
6.**Espanyol**	**49**	31	14	10	7	41	39
7.**Valentzia**	**48**	31	12	7	12	47	34
8.**At. Madril**	**46**	31	13	11	7	36	26
9.**Deportivo**	**46**	31	11	7	13	40	37
10.**Athletic**	**44**	31	12	11	8	50	42
11. **Zaragoza**	**43**	31	12	12	7	37	42
12.**Getafe**	**39**	31	10	12	9	32	36
13.**Reala**	**39**	31	11	14	6	40	45
14.**Malaga**	**36**	31	10	15	6	40	45
15.**Levante**	**35**	31	9	14	8	36	46
16.**Racing**	**34**	31	9	15	7	33	46
17.**Osasuna**	**34**	30	9	14	7	36	53
18.**Albacete**	**24**	31	5	17	9	27	45
19.**Mallorca**	**24**	31	6	19	6	28	55
20.**Numantzia**	**23**	31	5	18	8	22	48

Kiniela

KINIELA

1. Deportivo-Vila-real	X
2. Athletic-Reala	1
3. Osasuna-Racing	1
4. Espanyol-Sevilla	2
5. Numantzia-At. Madril	1
6. Mallorca-Zaragoza	2
7. Valentzia-Malaga	X
8. Getafe-Albacete	1
9. R. Madril-Bartzelona	1
10. Betis-Levante	X
11. Valladolid-Sporting	1
12. Cordoba-Murtzia	X
13. Malaga-Cadiz	X
14. Tenerife-Gimnastic	X

Reala

Puntuek Realean eman duten lasaitasuna, jokoak kentzen du zaletuengan

Sakontasun falta nabaria da Amorrorturen taldean, eta golak sartu badira ere, jokoa eskasa da

Jokin Etxebarria

Tristea da hau esatea, baina zortzi jardunaldi faltan notizi hori jasotzea gauza handia izan da Realarendako. Tristea, talde batek beti izan behar du eta handiena xede modura. Baina handia, Realak nolako urtea pasa duen ikusi eta gero. Eta ez nabil taldean egon diren arazoei buruz bakarrik berba egiten; klub bezala ere arazo larriak izan ditu –orain denak ekaineko hauteskundeen zai daude. Horregatik dauka oraindik ere meritu handiagoa Realak lortutakoak. Eta taldearen jokoa ikusita, zer esanik ez.

NIHAT EZ, GOLAK BAI

Amorrortuk meritu itzela daukanik ezin dela ukatu uste dut. Denboraldia hasi baino egun batzuk lehenago Xabi Alonsok Liverpoolera alde egin zuen, eta taldeko zutoinik gabe gelditu zen. Gazte askorekin jokatu behar izan du denboraldi osoan. Eta gainera, Nihatek min hartu zuen denboraldi erdian. Zeinek gola sartuko genbiltzanean hasi da Reala binaka golak sartzen. Eta eskerrak horri, zeren eta jokoari begira hasten bagara...

Nihat ez dagoenetik sakontasun falta nabaria da Realean, eta Kovacevicek lan eskerga egin arren, bakarregi gelditzen da erasoari begira.

Oraindik ez dut ulertzen joko honekin nola sartu diren partiduko bi gol, baina *futbola horrelakoa da*.

Kovacevicek lan eskerga egin arren, bakarregi dago erasoari begira

Handia da Realak dagoeneko maila mantentzea, pasa duen urtea ikusi eta gero

• DERBYA EGUNKARIETAN

ASTELEHENEKO GOIENKARIA

GEHIEGIZKO EMAITZA REAL AHUL BATEN AURKA

Egunkari guztiak bat datoz zapatuan oso Real ahula ikusi zela esatean. Baina emaitza gehiegizkoa dela ere esaten dute gehienek. Athleticek ez zuen beste munduko ezer erakutsi, baina hiru txinpartarekin eta esperientzia gehiago edukitzearekin nahikoa izan zen baliabiderik gabeko talde baten aurka. Realak Kovacevic bakarregi utzi zuen eta UEFA berriz gerturatzen da San Mamesera.

AINTZANE AGIRRE

Mondrako atezainak ondo erantzun zien UDAk edukitako aukera garbi apurrei.

Joko eskaseko derbya UDA eta Mondraren artekoa

UDA
0-0
MONDRA

UDA | Gaizka, Raul, Oxel, Armendariz, Eriko, Iturbe (Orueta 53. min.), Igartua (Kepa 63. min.), Juan (Unamuno 45. min.), Arriaga, Alvaro eta Imanol (Oinatz 57. min.)

Mondra | Ander, Torres, Markel, Merkader, Argider, Ruben (Laspiur 79. min.), Illart (Barbarias 75. min.), Maikel (Lopez 27. min.) (Bereiartua 87. min.) eta Asier (Arkaitz 54. min.).

Epailea: Imanol Eizagirre jauna. Marrazainek ez zioten gehiegi lagundu, eta partiduko azken jokaldian hanka sartu zuen Josu Zubia Mondrako entrenatzailea kaleratzean.

Jokin Etxebarria

Ez zuten gustura bukatu, ez talde batekoek ez eta bestekoek ere. Agian gusturen UDA taldeko Eriko eta Kepa jokalariek bukatuko zuten, taldean hamar urte emateagatik Klubak zilarrezko garaikurra eman zien eta. Bi taldeek joko eskasa erakutsi zuten, eta horrelakoetan gertatu ohi denez, puntu banaketa egon zen. Baina jasotako puntua ez da nahikoa ez talde batentzat ez eta bestearendako ere. UDA putzuan dago, eta etxean bi puntuk alde egiteak ez dio mesederik egiten. Mondrak ez du arazo hori, baina puntuak lehenbailehen lortzea nahi du erabateko lasaitasuna edukitzeko.

Jokoari dagokionez, derbyetan gertatu ohi den bezala, nahiko eskasa izan zen. Aukera gutxi egon ziren, eta zelai erdian paseak ematerako orduan huts asko egin zuten bai aretxabaletarrek eta baita mondragoetarrek ere.

ZATI BAT BAKOITZARENDAKO

Lehen zatian Mondra izan zen partiduaren jabe. Zelaira hobeto irten zen, eta segituan egin zen zelai erdiaren jabe. UDAkoek ez zuten gehiegi presionatu, eta arrasatearrek baloia alde batetik bestera mugitzeko ez zuten arazorik izan. Hala ere, azken pasea egiterako orduan ez zuten asmatu.

Bigarren zatian etxekoak gehiago izan ziren. Puntuen premiak aurrera jotzera eraman zituen, eta Mondra apur bat atzean sartuta zegoenez, aukeraren bat edo beste izan zuen UDAk, baina Mondrako atezainak ondo erantzun zuen.

Partiduko gauzarik politena hura hasi baino lehenago gertatu zen. Erikori eta Kepari UDAk emandako zilarrezko garaikurra, hain justu ere.

• HORRELA IKUSI DUTE TALDEETAKO JOKALARIEK



ERIKO | ARETXABALETA

"Eurek ere ez dute beste munduko ezer egin"

"Berdinketa merezitakoa izan da. Lehen zatian eurak izan dira nagusi, eta bigarrenean gu, nahiz eta gure jokoa ez den oso ona izan. Hala ere, eurek ere ez dute beste munduko ezer egin. Hemendik aurrera derrigortuta gaude partiduak irabaztera, zeren eta zuloan sartuta gaude; ea horrela moralak ere gora egiten duen".

JOKIN | MONDRA

"Berdinketa nahiko justua dela uste dut"

"Lehen zatian guk dominatu dugu. Aretxabaletakoek ez dute gehiegi presionatu, eta baloia alde batetik bestera ongi mugitu dugu. Bigarren zatia aldiz, eurena izan da. Puntu beharra dute eta horrek gehiago presionatzera eraman ditu, eta atzean sartu gaituzte. Berdinketa nahiko justua dela uste dut".

Mailan mantentzeko urrezko hiru puntu Galen

REAL UNION
1-2
BERGARA

Real Union | Iruetaguena, Berasaluze, Zugarramurdi, Arregi, Ibañez, Aizpurua, Idarramendi, Jimenez (Ortizberea 67. min.), Arrondo, Ioritz eta Perez (Amezketa 67. min.).

Bergara | Sesma, Elkoroberezibar (Lete 67. min.), Arana, Aitor Berraondo, A. Agirre, Loiola, U. Agirre, Otero, Martin (Imanol 59. min.), Garin eta San Vicente (Zubikarai 74. min.).

Golak: 1-0 Ibañez. 1-1 U. Agirre. 1-2 Zubikarai.

Epailea: Enrique Ayesa jauna. Aritz Agirre kaleratu zuen 75. minutuan.

A.G.

Real Union aurreratu zen markagailuan hirugarren minutuan. Hala ere, lasaitasuna mantendu zuen Bergarako taldeak eta lehen zatia amaitu baino bost minutu lehenago Unai Agirrek partidua berdindu zuen.

ZUBIKARAI IRTEN ETA GOLA

Aulkitxoan hasi zuen partidua Zubikaraik eta Oregik azkeneko minutuetan atera zuen. Ondo irten zitzaion jokaldia, izan ere, zelaira irten eta bost minutura hiru puntu balio zituen gola sartu zuen. Hurrengo astean Anaitasuna izango da etsai. Nahiz eta etxetik kanpo hiru puntu lortu, hurrengoa ere beste final bat da.

AINTZANE AGIRRE

Amaiera arte borrokatu behar izan zuten garaipena lortzeko.

Olaldek 95.ean sartu zuen garaipenaren gola

ALOÑA
2-1
ORDIZIA

Aloña | I. Idigoras, Losada, Barrena, Lopez, Astola, Roberto (Aramendi 79. min.), Garai, Sanchez (Olalde 57. min.), Albizu, I. Arregi (Moiua 65. min.) eta Astigarraga (U. Arregi 72. min.).

Ordizia | De Marcos, Mujika, Gonzalez, Irazola, Aramendi, Garmendia, Mendes, Oiarbide, Crespo, Urdangarin (Clemente 57. min.) eta Tello (Odriozola 70. min.).

Golak: 0-1 Mendes. 1-1 Albizu. 2-1 Aramendi.

Epailea: Berasategi. Kikilduta zegoen arren ez zuen jokaldi erabakigarririk izan.

Jon Unamuno

A ze nolako partidu bukaera! 75. minutu arte 0-1 galtzen zihoazen Oruetaren mutilak, hirugarren minutuan sartu zuten eta ordiziarrek gol bakarra. Azkeneko minutuetan etorri ziren etxekoen golak eta, bide batez, zelaian ikusitakoari justizia egin zion markagailuak.

Unai Arregiren irteerak ezker hegaletik sakontasun gehiago eman zion taldeari eta handik etorri zen lehen gola. Honen erdiraketa bat bikain asmatu zuen Albizuk sarera botatzen. Oraindik 15 minutu gelditzen ziren eta garaipenaren bila joan ziren itsuitsu oñatiarrak.

AUKERA ASKOREN OSTEAN OLALDEK GOLA

Unai Arregiren erdiraketa baten ostean, Garairen burukada izugarria batetik, eta Arregi beraren falta jaurtiketa bat bestetik, lehen abisuak izan ziren. Olalderen gola postre gozoa izan zen.

• SENIOR MAILAKO NESKAK

ASTELEHENEKO GOIENKARIA

ALOÑA MENDI 0 - BERGARA 2

Emozioz beteriko derbya ikusi genuen zapatuan Ibarrako zelaian. Lehen zatiaren hasieran, inork ez zuen agindu zelaian, baina Aloña gehiagotan iritsi zen Bergararen atera. Larraitzen neskak 30. minutuan aurreratu ziren epaileak adierazitako penalti argia sartu ondoren. Bigarren zatia hasi eta berehala, bigarren gola sartu zuten bergararrek. Aloñakoek, aurrera jo zuten partidua berdindu nahian, baina bergararrek ederki defendatu zuten, eta hiru puntuak Bergarara joan ziren.

• 2. MAILA ERREGIONALA

Puntu garrantzitsua lortu zuen Antzuolak

ANTZUOLA
2-2
LASARTE ORIA

Jasone Zabala

Partidu polita ikusi ahal izan genuen Estalako zelaian zapatuan. Kopako txapelketari zegokion partiduan, liderrak egin zion bisita Debagoieneko taldeari, eta joko ona erakutsi zuen.

Lehen zatia nahiko parekatuta joan zen, eta bi taldeek izan zituzten aukerak. Hala, lasartearrak aurreratu ziren markagailuan. Antzuolak lanean jarraitu zuen, eta korner jaurtiketa baten bitartez berdinketa lortu zuen Xikerrek. Lasartearrek ederki mugitu zuten baloia alde batetik bestera bigarren zatian ere, baina Antzuola ere fin zebilen. Etxeko taldeak markagailuan aurreratzea lortu zuen, baina bi minuturen faltan, Lasartek binako berdinketaren gola lortu zuen.

Azkenean, ez zen gehiagorako astirik izan, eta partidu ona jokatu eta gero, puntu garrantzitsua Antzuolak liderraren aurka lortutakoa.

• GAZTEEN EUSKAL LIGA

Erraz irabazten joan ondoren puntu bakarra Aloñarentzat

ALOÑA MENDI
4-4
S. HERRERA

A.G.

Partidu polita jokatu zuten zapatuan Azkoagainen. Behe aldean dabilen Sporting Herrera zuten bisitari, eta hiru puntu lortzeko aukera ezin hobea zuten oñatiarrek.

Etxekoak nahiko jende gaztearekin jokatu zuten. Markagailuan aurretik Aloñakoak jarri ziren, baina kanpotarrek lasaitasun askorekin jokatu zuten, sailkapeneko zuloan daudelako. Horrela, berdinketaren gola lortu zuten. Baina berehala etxekoak aurreratu ziren; kanpotarrek ez zuten etsi, eta berdindu egin zuten berriz. Aloñak asko estutu zuen joko ona eginez, eta 4 eta 2 jarri zen aurretik. Baina azken momentuko urduritasunak intentsitatea jaitsiarazi zien, eta partidua amaitzeko 7 minuturen faltan, beste bi gol egin zizkien etxekoei. Azkenean, puntu bakarrarekin konformatu behar izan zuten Aloña Mendikoek.

• OHOREZKO KADETEAK

Edukitako aukera gutxiak sartuz irabazi zuen Realak

MONDRA
0-4
REALA

Jokin Etxebarria

Realak jendea erakarri ohi du herrietan jokatzen duenean. Eta normalean, berdin du zein mailatakoa den taldea, zapatuan Atxabalpen gertatu zen moduan. Zelaia goraino bete zen, nahiz eta eguraldia ez zuten lagun izan ikusleek.

Partiduari dagokionez, esan behar da nahiko parekatua izan zela, hasieran behintzat. Realaren nagusitasuna nabaria zen, baina etxekoek teknikarekin baino bihotzarekin gehiago jokatuta partidua parekatua mantentzea lortu zuten donostiarrek lehen gola egin arte. Hortik aurrera behera etorri ziren mondragoetarrak, eta beste bi gol jarraian sartu zizkieten. Bigarren zatian, berriz ahalegindu ziren etxekoak gora egiten, baina Realak ondo eutsi zien, eta horretaz gainera, beste gol bat sartu ahal izan zuten edukitako aukera bakarrean.

Ikusitakoak ikusita

Jasone Zabala

ALOÑA ETA BERGARA GORA BEGIRA SAILKAPENEAN

Txapelketa amaitzeko 7 partiduren faltan, badirudi Aloña eta Bergara berandu bada ere, lanean fin ari direla denboraldia lasai amaitzeko. Bergarak bi partidu jarraian irabazi ditu, eta gertuago dauka mailari eusteko amets hori. Aloña ere, bide berean dabil: asteburu honetan garaipen garrantzitsua lortu du hirugarren dagoen Ordizia taldearen aurka. Zuloa oraindik ere gertu dago, baina zelaian erakutsitakoarekin badirudi ez dutela arazorik izango mailari eusteko bi taldeek.

Emaitzak eta sailkapenak

PREFERENTE MAILA

Sailkapena

	Punt.	J.
1. **Tolosa**	**66**	31
2. **EHU**	**65**	31
3. **Ordizia**	**57**	31
4. **Real Union**	**54**	31
5. **Zarautz**	**54**	31
6. **Trintxerpe**	**48**	31
7. **Zestoa**	**43**	31
8. **Mondra**	**42**	31
9. **Hondarribia**	**41**	31
10. **Pasaia**	**40**	31
11. **Mutriku**	**40**	31
12. **Touring**	**39**	31
13. **Aloña Mendi**	**37**	31
14. **Beti Gazte**	**35**	31
15. **Aretxabaleta**	**34**	31
16. **Anaitasuna**	**34**	31
17. **Bergara**	**34**	31
18. **Orioko**	**33**	31
19. **Urola**	**32**	31
20. **Oiartzun**	**18**	31

Emaitzak

EHU-Pasaia	3-1
UDA-Mondra	0-0
Touring-Beti Gazte	0-1
Zarautz-Orioko	6-0
Zestoa-Urola	3-0
Aloña Mendi-Ordizia	2-1
Tolosa-Mutriku	1-1
Anaitasuna-Oiartzun	0-1
Real Union-Bergara	1-2
Trintxerpe-Hondarri.	2-0

Hurrengoak

Mondra-Pasaia
Beti Gazte-UDA
Orioko-Touring
Urola-Zarautz
Ordizia-Zestoa
Mutriku-Aloña Mendi
Oiartzun-Tolosa
Bergara-Anaitasuna
Hondarribia-Real Union
Trintxerpe-EHU

GAZTEEN EUSKAL LIGA

Sailkapena

	Punt.	J.
1. **Tolosa**	**57**	26
2. **San Inazio**	**56**	26
3. **Barakaldo**	**55**	26
4. **Durango**	**50**	26
5. **Eibar**	**47**	26
6. **Elgoibar**	**40**	26
7. **Aloña Mendi**	**39**	26
8. **Zalla**	**38**	26
9. **San Martzial**	**37**	26
10. **Amorebieta**	**34**	26
11. **Lagun Onak**	**34**	26
12. **Zugatzarte**	**34**	26
13. **Olarizu**	**29**	26
14. **Sp. Herrera**	**23**	26
15. **Bermeo**	**22**	26
16. **Alde Zaharra**	**7**	26

Emaitzak

Alde Zaharra-Eibar	1-5
Elgoibar-Zugatzarte	2-2
Olarizu-San Inazio	1-2
Aloña M.-Sp.Herrera	4-4
Lagun Onak-Durango	0-1
Tolosa-Zalla	1-0
Barakaldo-S. Martzial	2-1
Bermeo-Amorebieta	2-1

Hurrengoak

Zugatzarte-Eibar
San Inazio-Elgoibar
S. Herrera-Olarizu
Durango-Aloña Mendia
Zalla-Lagun Onak
San Martzial-Tolosa
Amorebieta-Barakaldo
Bermeo-Alde Zaharra

BIGARREN ERREGIONALA (KOPA)

Sailkapena

	Punt.	J.
1. **Lasarte Oria**	**18**	9
2. **Amaroz**	**17**	8
3. **Urki**	**15**	9
4. **La Salle**	**14**	9
5. **Antzuola**	**11**	8
6. **Zestoa**	**6**	8
7. **Donibane**	**3**	9

Emaitzak

Zestoa-Urki	2-3
Antzuola-Lasarte Oria	2-2
Donibane-La Salle	2-0
Amaroz	Atsedena

Hurrengoak

La Salle-Zestoa
Urki-Antzuola
Lasarte Oria- Amaroz
Donibane Atsedena

BESTELAKOAK

OHOREZKO GAZTEAK

Union Txiki-UDA	3-0
Euskalduna-Arrasate	0-0

LEHEN MAILAKO GAZTEAK

Arrasate-Orioko	0-3
UDA Arizmendi-Amara Berri	2-1

BIGARREN MAILAKO GAZTEAK

Kostkas-Bergara	1-1
Antzuola	Atsedena

KADETEEN OHOREZKO MAILA

Zarautz-Aloña Mendi	5-1
Arrasate-Erreala	0-4
Bergara-Hernani	1-0

LEHEN MAILAKO KADETEAK

UDA Arizmendi-Antoniano	2-2

BIGARREN MAILAKO KADETEAK

Añorga-UDA Arizmendi	4-0
Bergara-Eibartarrak	5-2
Urki-Antzuola	1-5

EMAKUMEZKOEN LIGA(IGOERA)

Aloña Mendi-Bergara	0-2
Luberri-Almen Aretxabaleta	3-0
Tolosa-Mondra	2-0

EMAKUMEEN F-8 LIGA (KOPA)

Bergara-Dunboa Eguzki	1-2
Almen Arizmendi-Urola	3-3
Antzuola-Almen UDA	0-3

INFANTIL OHOREZKO MAILA

Lengokoak-UDA Arizmendi	2-2

INFANTIL LEHEN MAILA (IGOERA)

Aloña Mendi-Bergara	4-0

INFANTIL LEHEN MAILA (KOPA)

Arrasate-Zumaiako	3-0

INFANTIL TXIKI (KOPA)

Hondarribia-UDA Arizmendi	3-0

INFANTIL F-8 (AZKEN FASEA)

Antzuola-Bergara	5-4
Aloña Mendi-Zumaiako	b.b.

ALEBINAK (2. FASEA)

UDA-Lengokoak	3-2
Bergara-Añorga	5-3
Aloña Mendi-Vasconia	3-6
Arrasate-Ostadar	1-2

• PROFESIONALAK

Kokak lehen zati ederra egin zuen arren, Gonzalezi airezko jokoak partidua eman zion

Altzakoa ederki hasi zen, txokoan amaiera bikaina emanez tantoei, baina bigarren zatian behera egin zuen

KOKA
18-22
GONZALEZ

Iraupena: 45 minutu.

Tanteoa: 1-0, 1-1, 3-1, 5-1, 7-1, 8-3, 8-4, 10-5, 10-8, 13-10, 13-13, 13-17, 13-19, 14-20, 17-20, 18-21, 18-22.

AINTZANE AGIRRE

Bi pilotariek partidu txarra jokatu zuten, baina Gonzalezek hobeto eutsi zion partiduari.

Jasone Zabala

Ez zen partidu ona izan atzo Bergarako pilotalekuan ikusitakoa. Gorriz, Koka, eta urdinez Gonzalez aritu ziren. Lehen sakea Kokarena izan zen, eta partiduko lehen tantoa ere bai.

Hasieratik ikusi zen Kokaren jokoa zein izango zen: sakea bikain burutu, Gonzalezek ahal zuen bezala eramateko, eta txokoan dejada egin. Hasierako tanto hauetan ez zen peloteo luzerik izan, eta honek Kokari egin zion mesede. Gonzalez oraindik jokoan sartu gabe zegoen eta Kokak ederki aprobetxatu zuen hori, Azkaineko pilotaria pilotara heldu ezinik baitzebilen.

Poliki-poliki Gonzalez jokoan sartzen hasi zen, baina ordurako Kokak markagailuan bazuen abantaila: 8-3. Gonzalez tanto bakoitza luzatzen hasi zen, eta pilotari eman eta eman aritu zen. Honek mesede egin zion, eta orduan hasi zen txokoan dejadak egiten Azkainekoa; horrela, markagailura hurbildu zen, eta 13nako berdinketa lortu zuen; ordura arteko lehen berdinketa. Handik aurrera, partiduak beste itxura bat izan zuen, eta Gonzalez hasi zen tantoak egiten.

Lan erdiak egin arte ederki aritu zen Koka, baina bigarren zatian behera egin zuen

Gonzalez ederki defendatu zen airez, eta merezimendu osoz irabazi zuen

KOKAREN BEHERAKADA

13nako berdinketaren ondoren, Gonzalez hasi zen agintzen, Altzakoak baino tanto luzeagoak jokatuz eta airez ederki defendatuz. Modu honetan, 13tik 19raino joan zen Gonzalez eta partidua hor amaitu zen. Azkenean 18 eta 22 Gonzalezen alde.

Hurrengo partidua Barriola nafarraren aurka izango du Azkaineko pilotariak.

Adituen iritzia

"Partidu oso txarra izan da. Gonzalez urduri ikusi dut partidu guztian zehar. Kokak hasiera ona izan du partidu erdira arte, baina hortik aurrera beherakada izugarria izan du, batez ere 13. tantotik aurrera. Orain Barriola izango du aurkari Gonzalezek eta lan asko egin beharko du".

PACO MARTINEZ | PILOTARI OHIA

"Partidu txarra izan da oso. Partidu arraroa. Koka bere mailan aritu da, eta Gonzalez nahiko urduri, partiduan sartu ezinda ibili da Azkainekoa. Boleakadak jo ditu, baina gozatu gabe. Gaizki jokatuta irabazi egin du. Bere jokoa eginez gero, Kokak ez ziokeen hainbeste tanto egingo".

FELIX AGIRRE | OLALDEKO DELEGATUA

"Gonzalezek urduri hasi du partidua, baina partidua aurrera joan ahala hobeto jokatzen hasi da. Kokak hasieran ondo errematatu du, baina gero jaitsi egin du maila, urduritasunagatik edo. Normalean baino gehiago huts egin du. Merezimendu osoz irabazi du Gonzalezek partidua".

ANTTON MAIZ | PILOTARI OHIA

Beste bi partidu ere jokatu ziren Bergaran

Beste bi partidu ere jokatu ziren banakakoaren ondoren. Hauetatik lehenengo partiduan Irujo eta Eulate, Titin III.a eta Apeztegiaren aurka aritu ziren. Hasieratik Irujo eta Eulate jarri ziren aurretik markagailuan. Txokoan ederki uzten zuen pilota Iberoko aurrelariak, eta Titinek ezin zuen ezer egin. Eulatek bere lana txukun egin zuen, eta Apeztegiak pilota asko gora bota zituen hasierako tantoetan. Bi aurrelarien artean borroka polita ikusi ahal izan genuen. Lan erdietara orekatuta heldu ziren. 12nako berdinketa izan zen, eta Titin eta Apeztegia hortxe aurreratu ziren lehenengo aldiz. Partiduko azken txanpan Apeztegiak huts asko egin zituen, eta Titinek lan asko egin behar izan zuen. 20 eta 18ko markagailua ere izan zen, baina azkenean aurreko koadroetan erabaki zen partidua. Bigarren partiduan berriz, Etxaniz eta Nalda III.ak Capellan eta Urberuagaren aurka jokatu zuten. Partidu polita jokatu zuten lau pilotariek. Capellan bikain aritu zen partidu guztian zehar eta sakez 5 tanto egin zituen; Naldak sakea eramaterako orduan lanak izan zituen, oso ondo sakatu baitzuen errioxarrak. Markagailuan ez zen alde handirik egon, bi edo hiru tantoren aldea beti. Etxanizek ezin izan zion Huercanoseko aurrelariari eutsi, eta nahiz eta atzelariak ongi aritu ziren, joko guztia aurreko aldean izan zen eta partiduak ez zuen kolorerik izan.

1. bat gehiago izan
2. nire umea ekarri
3. itxaropena

1. lana
2. nire lagunak
3. planeta

1. enplegu iraunkorra
2. etxebizitza
3. familia

1. erantzunak
2. elkarrizketa
3. aurrera

1. ongizatea
2. maialen
3. bakea

Ilusioz begiratzen diogu denok etorkizunari. Horregatik, eskatzen dizut botoa, Apirilaren 17an. Bakea eta zure beharrei erantzungo dien garapena lortuko dituen eta euskal gizarte osoari ongizate hobea ekarriko dion egitasmo bateratuari bultzatzen jarraitzeko. Nahi duzu. Ahal duzu.

Elkarrekin egingo dugu.

eman botoa

EUZKO ABERTZALEAK

eusko alkartasuna

EAJ PNV

• EUSKADIKO TXAPELKETA

Defentsa gogorra izan zen etsaia

Elgoibartarrek bigarren zatian ezarritako defentsak hankaz gora laga zituen Bergarako jokalariak

BERGARA
17-26
ELGOIBAR

Bergara | Errasti, Iñurrieta, Larrañaga (2), Cabo (1), Ruben, R. Pozo (1), Aldanondo (3), Asier Mujika (1), Zabaleta (2), Plazaola (2), Anartz Mujika (1), Zangitu, Ugartetxe (1) eta M. Pozo (3).

Elgoibar | Leon (2), Santos (2), Puenteurra (4), Sagasta (2), Ulibarri (3), Casado, Kruzelegi (5), Alberdi (3), Leibar (3), Peñaranda (1), Luke (1), Azkue eta Iriondo.

Golak bost minuturo: 1-3; 1-5; 2-6; 6-8; 9-10; 10-12; 11-14; 12-16; 13-19; 15-21; 17-24; 17-26.

Epailea: Serralbo eta Gude.

Jon Unamuno

Bergarako taldea Elgoibarko taldearen menpe egon zen bigarren zatian eta azkenean hori izan zen partiduaren klabea.

Lehenengo zatiak beste itxura bat izan zuen. Nahiz eta hasiera eskasa izan, Bergarak hamabost minutuko susperraldia izan zuen eta hamarna berdindu zuen markagailua.

DEFENTSA GOGORTU ELGOIBARREK

Ondo hasi zen bigarren zatia. Asier Mujikak gola sartu eta puntu bateko diferentziarekin jarri ziren markagailuan. Hala ere, ilusio hutsa izan zen. Asko kostatzen zitzaien Elgoibarren defentsan hutsuneak aurkitzea eta kontraeraso bidez gol asko jaso zituzten.

Aurrealdean, Elgoibarrek aniztasun handiagoa erakusten zuen jokoan eta jaurtiketa errazagoak izan zituen. Bergarak, aldiz, hurruneko jaurtiketa asko egin behar izan zituen eta ondorioz, baloi asko galdu ziren. Hegaleko jokalarien parte hartzea ez zen oso handia izan eta horrek taldearen jokoa pobretu zuen.



AINTZANE AGIRRE

Elgoibarreko jokalariek jaurtiketa erraz gehiago izan zituzten.

• LEHENENGO NAZIONALA

30-15 galdu zuen Arrikrutzek Anaitasunarekin

A.G.

Arrikrutzek Zumaian mailan mantentzea lortu zuenean denboraldia amaitu zuen. Ez du maila bera erakutsi handik aurrera.

Hurrengo astean denboraldi honetako azken partidua izango dute. Toledo izango da arerioa eta denboraldia garaipen batekin borobiltzea garrantzitsua litzateke taldea eta zaleendako.

• LEHENEN TERRITORIALA

AGR Urduliz baino gehiago izan zen: 27-38

A.G.

Igoera fasean bigarren partidua jarraian irabazi zuen AGRk Urdulizen atzo. Lehen zatian egindako lana bikaina izan zen, eta bigarrenean, aurrez lortutako abantaila mantendu besterik ez zuten egin behar izan. Kontrarioak gogor borrokatu ziren, baina mondragoetarrek ondo eutsi zieten.

• BIGARREN MAILA (JAITSIERA FASEA)

Defentsa onari esker irabazi zuten

Lau partidu jarraian irabazi eta gero, taldera konfiantza bueltatu da, eta hurrengo partiduetarako oso garrantzitsua da hori

ESKORIATZA
70-48
ERANDIO

Eskoriatza | Usabiaga (9), Laborda (2), Gomez (9), Alarcia (3), Sebastian (4), Murillo (13), Etxeberria (26), Soriano, Exposito (3) eta Etxebarria (1).

Erandio | Gutierrez, Rekers (1), Buendi (11), Aurrekoetxea, Romero (8), Del Portillo (10), Martin (4), Orbea, Perez (2), Albo (4), Arozena (8) eta Gordo.

Laurdenetako emaitzak: Lehenengo laurdena 12-17. Bigarren laurdena 35-26. Hirugarren laurdena 51-38. Laugarren laurdena 70-48.

Jokin Etxebarria

Lau partidu jarraian irabazi dituzte Eskoriatzako neskek zapatukoa kontutan hartuta. Badirudi konfiantza taldera bueltatu dela, eta datozen partiduei aurre egiteko ondo etorriko zaie Fernando Rasoren neskei. Gainera, kontuan hartuta maila bost taldek galtzen dutela, derrigorrezkoa zaie eskoriatzarrei partiduak irabazten jarraitzea, sailkapenean larri xamar daude eta. Hala ere, zapatuan erakutsitako jokoa hurrengo partiduetan ere erakusten badute, ez lukete zailtasunik eduki behar maila mantentzeko. Defentsan lan bikaina eginda puntu gutxi jaso zituzten, eta partiduetan horrela defendituz gero, erasoan zerbait eginda garaipenak etorriko dira, ziur.

GAKOA: BIGARREN LAURDENA

Partiduko lehen laurdena oso parekatua izan zen. Etxekoek ez zuten jaurtiketetan gehiegi asmatu, nahiz eta erasoan baloia ongi mugitu zuten. Bizkaitarrek etxekoen hutsak aprobetxatzen zituzten kontraerasoan azkar irteteko. Azkarregi batzuetan, baloi ugari galdu zituzten eta horrela. Akatsetik akatsera zebiltzan bi taldeak, baina azken minutuan kanpokoek abantaila txiki bat hartu zuten erasoan apur bat asmatu eta gero.

Partidua, hala ere, bigarren laurdenean erabaki zen. Etxekoak bikain hasi ziren, eta 10-0eko partzial bat eginez, markagailuan aurretik jarri ziren. Ez zitzaion nahikoa iruditu Fernando Rasori hori, eta kantxa osoko presioa antolatu zuen. Kanpokoek kontrako saskira heltzeko arazoak izan zituzten –bederatzi puntu bakarrik sartu zituzten laurden honetan– eta etxekoek, baloia berreskuratu bezain azkar Murillok barneraketak egin eta saskiratzea lortzen ez bazuen, faltak ateratzen zituen, min handia eginez. Murilloz gain, Etxeberriaren lana goraipatzekoa da, 26 puntu sartu zituen eta.

Bigarren zatia erraza izan zen etxekoendako, entrenamendu gogor bat. Kanpokoek ahaleginak egin zituzten, baina etxekoak gutxika-gutxika abantaila handitzen joan ziren, azkenean 22 puntuko aldeaz irabazi arte.

AINTZANE AGIRRE

Defentsan egindako lan onak garaipenera eraman zituen eskoriatzarrak.

• LEHEN MAILA

Bolada onari agur esan dio Mugarri Alkesak

TABIRAKO
87-79
MUGARRI ALKESA

Asteleheneko Goienkaria

Beti ezin daiteke irabazi, eta bolada onak agortu egiten dira. Hori gertatu zitzaion zapatuan Mugarri Alkesari Durangon. Partidu asko zeramatzaten jarraian irabazten, baina, azken laurdenean Durangoko joko antolatzaileak sartutako saskiratze mordoei esker, Tabirakok mondragoetarren bolada ona apurtu zuen.

Ez zen partidu guztiz txarra izan arrasatearrena. Lehenengo hiru laurdenetan, nahiko lan txukuna egin zuten. Oso parekatua izan zen partidua, gorabehera handikoa. Abantaila txikiak izan ziren markagailuan, bai talde batentzako eta baita besteareentzako ere. Mondragoetarren aldetik Mallabiabarrena, Gamarra eta Kintana nahiko fin zebiltzan, eta eurei esker markagailuan parekaturik mantentzea lortzen zuten. Hala ere, eta nahiz eta partidua nahiko kontrolpean izan arrasatearrek, laugarren laurdenean etxekoek defentsa gogortu zuten, eta joko antolatzailea hiruko pila bat sartzen hasi zen. Hori dela eta garaipena Durangon gelditu zen azkenean.

Intentsitaterik gabe ezin irabazi

CANDY BERGARA
32-41
LASARTE BASKET

Candy Bergara | Gonzalez (2), Morais (6), Arteaga, Beistegui, Ugarte (3), Alonso, Iñarra (7), Larrañaga eta Eraña (14).

Lasarte Basket | Garmendia (4), Mendiguren (8), Arratibel, Bea (6), Berzosa (9), Ayerbe (6), Mendizabal (8) eta Barandiaran.

Laurdenetako emaitzak: Lehenengo laurdena 9-8. Bigarren laurdena 12-23. Hirugarren laurdena 20-31. laugarren laurdena 32-41.

Jasone Zabala

Partidu txarra jokatu zuen Bergarak zapatuan. Lasarte taldea zuten aurkari, baina gogo gutxirekin aritu ziren etxekoak hasieratik.

Lehen laurdenean, zonakako defentsan jarri ziren kanpokoak, eta etxekoak saskiratzeak lortu ezinik aritu ziren. Lehen laurdenean, 9 puntu bakarrik sartu zituzten David Urbinaren mutilek. Bigarren eta hirugarren laurdenak, berdin joan ziren. Kanpotarrek abantaila hartu zuten markagailuan, eta Bergarak ezin izan zuen ezer egin alde hori murrizteko. Hirugarren laurdenean, presioa egin zuten etxekoek, baina hiru puntu besterik ez zituzten sartu.

AZKEN LAURDEN ONA

Azken laurden ona egin arren, aurretik egindako lan txarraren ondorioz, markagailuak 9 puntuko aldea erakusten zuen Lasarteren alde. Azkenean, saskiratze gutxi izan ziren orokorrean, baina garaipena Donostia aldera joan zen.

AINTZANE AGIRRE

Intentsitate falta handia izan zuten etxekoek hasieratik.

Emaitzak

MAILAZ MAILA

LEHEN MAILA

Tabirako-Mugarri Alkesa	87-79

SENIOR MAILAKO GIPUZKOAKO TXAPELKETA

Candy BKE-Ordizia	32-41
Aloña Mendi-Lasarte	67-61

GAZTE MAILAKO GIPUZKOAKO TXAPELKETA

Ordizia-Mugarri Alkesa	51-33
STL-Aloña Mendi	35-47
Araneta-Lasao Altzariak	54-40

KADETE MAILA

Mugarri Alkesa-Goierri	67-55
Lacor-Hernani	47-53
Aloña Mendi-GSB Acero	46-54

NESKEN BIGARREN MAILA

Eskoriatza-Erandio	70-48

GAZTE NESKAK

Añorga-Aloña Mendi	46-23
Eskoriatza-Indulita	34-37

KADETE NESKAK

Bergara-At. S. S.	43-34
Eskoriatza-Internacional	43-36

Txirrindularitza munduaren erdian jarri zen Oñati egun batez

Eguraldiak lagundu ez zuen arren, zaleek ez zuten kale egin eta egun polita irten zen

UCI Pro Tourra dela eta, iaz baino 400 akreditazio gehiago eman ziren

Aloña Mendi elkarteko txirrindularitza sailak bete du denboraldiko zita nagusia

Herritarren aurrean eta Arantzazun; amets bat bete zuen Markelek.

ATECE elkarteak egin zuen mendi bizikletaren zozketan 3.571 zenbakia irten zen irabazle.

Garaipen garrantzitsua lortuta, irrifartsu, nola bestela.

Batek baino gehiagok igaroko zituen minutu asko bertan.

Saria Mikel Urkia eta Iñaki Iglesiasendako logotipoen lehiaketa irabazteagatik.

Di Luca onena izan zen, Contadorrek erlojupeko izugarria egin zuen eta gerta daitezela Klasikak Rebelinekin.

EUSKAL HERRIKO ITZULIA OÑATIN

AINTZANE AGIRRE

OÑATIARRAK ITZULIAN | MARKEL TXIRRINDULARI ETA ODRIOZOLA HIZLARI

"Halako lasterketa bat Oñatin amaitzea luxua da"

Jon Unamuno

Lan desberdinak izan dituzte Itzulian Markel Irizar eta Jon Odriozolak. Bakoitzak bere ikuspuntutik eman digu Itzuliaren balorazioa.

Ez zen egun aproposa izan zaleekin solasean egoteko eta nahikoa lan izan zuen bakoitzak berea egiten. Hala ere, izan zuten tarte bat ASTELEHENEKO GOIENKARIArekin berba egiteko.

Markel oñatiar guztien begitartean zegoen. Asko maite du Oñatik Markel eta hori erakusteko halako beste aukerarik ziurrenik ez da egongo. Hori guztia bazekien Markelek eta lan txukuna egitea nahi izan zuen. Hala ere, eguaztenean alergia etorri zitzaion eta ez zen egoerarik onenean etorri Oñatira. Baina, herriko haizeagatik edo Aloña Mendi ikusteagatik, goizeko sektorean birikak zabaldu zitzaizkion. Hala ere, arratsaldeko erlojuz kontrakoa oso gogorra egin zitzaion. Amaieran esker berbak ziren bere ahotik irteten zirenak. Txirrindularitza zalea den heinean, herrian halako lasterketa bat bukatzea oso polita dela uste du. Aipagarritzat jo zuen lasterketak izan zuen maila: "Meagas portua 44 kilometro orduko igo genuen lehen etapan. Halako abiadura Itzuliak duen mailaren erakusgarri da".

JON ODRIOZOLA ETB-N

Ez zen lan erraza izan Jon Odriozolak izan zuena. Fermin Aramendiren zuzendaritzapean, Mikel Artetxerekin batera Itzuli osoan ETB-n hizlari moduan aritu da Jon. Aurreko urteetan Gorospe, Lejarreta edo Perurena egon diren lekuan egon da Orbeako entrenatzailea. Profesionalen mundua oso ondo ezagutzen du eta berak esandakoak urte askotako esperientzian oinarritzen ziren.

"Meagas portua 44 kilometro orduko igo genuen lehen etapan"

"Itzulia irabaztea nahi zuten igotzaileek ez dute azken sektore arte laga dena"

Euskal Herriko Itzulia oso borrokatua ikusi du Jonek: "Egunero ihesaldiak egon dira eta, gainera, Itzulia irabaztea nahi zuten igotzaileek ez dute azken sektore arte laga dena, izan ere, Lejanan edo Arantzazun igotzaileen ihesaldiak ikusi dira". Bere lanari dagokionez, pribilegiatua sentitu da Jon: "Lasterketa bizikleta gainetik ikusi edo helmugako tribunatik ikusi, izugarrizko diferentzia dago. Bakoitzak bere xarma du, baina aurtengoarekin ezin naiz kexatu" adierazi zuen oñatiarrak.

Egun berezia izan zen bi oñatiar hauendako. Markel Irizar bizikleta gainean eta Jon Odriozola hizlari moduan, Euskal Herriko Itzulian egon dira. Eurendako xarma berezia zuen Itzuliak, batik bat, euren herrian amaitzen zelako: Oñatin.

• NOLA BIZI IZAN DUZUE EGUNA?

JABIER ETA INAXIO | OÑATI

"Herriaren laguntza beharrezkoa zen eta gure aldetik ahal genuena eman dugu"

"Herriaren laguntza beharrezkoa zen eta gure aldetik ahal genuena eman dugu. Goizean beste talde bat egon da. Ohore bat da horrelako lasterketa bat Oñatin bukatzea. Munduko txirrindularirik onenetarikoak bertan daude eta Euskal Herriko Itzuliaren amaiera da gainera. Markel tartean egoteak plus bat ematen dio egunari."

ROBERTO ZUMALDE | OÑATI

"Giro txarra egon arren, jende asko gerturatu da"

"Goizean Urtiagainen egon naiz eta giro txarra egon arren, jende asko gerturatu da. Arratsaldekoak emozioa izango du. Lanean jai izan dugu eta horrek asko lagundu du jendea etortzeko."

ANA, SARA, MARIA, SARA ETA SHANA | OÑATI

"Markel Irizar eta Iban Mayo animatu ditugu gehien, bai goizean eta baita arratsaldean ere"

"Eskolan jai eman digute 11:00etan eta lasterketa ikustera joan gara Urtiagainera. Arratsaldeko erlojuz kontrakoa helmugan ikusi dugu. Markel Irizar eta Iban Mayo animatu ditugu gehien, bai goizean eta baita arratsaldean ere. Pena izan da eguraldi txarra egitea, baina horrelako egunak ez dira askotan izaten eta etorri beharra zegoen. Baditugu lagun batzuk txirrindulariak direnak eta eurek lasterketa ikusteko ilusio handia zuten."

Herriko hirugarren sektorea eta herrilana bultzatzeko bide bat topatu nahi izan dute

Andoni Gartzia alkatearekin erlojuz kontrako irteeran egon ginen. Txirrindulariek azken minutuetan izaten dituzten uneak gertu gertutik ikusteko aukera izan zuen. Argi zuen Euskal Herriko Itzuliak Oñatiri zer ekarriko dion. Goi mailako lasterketa bat ekartzeak, Oñatiren hirugarren sektoreari bultzada emateaz gain, herrilana ere sustatuko duela adierazi zigun Andonik. Lasterketa herrira ekartzeko aukera eskaini ziotenean, ez zuen inongo zalantzarik izan eta ondo asmatu zuen.

350 herritar ibili ziren egun osoan bidegurutzeetan eta beste laguntza batzuk ematen

Oñati munduko txirrindularitza zaleen begi bistan egon zen egun oso batez. Horren garrantziaz jabetuta, deialdi zabala egin zuten antolakuntzatik eta herriak oso ondo erantzun zuen. Bi sektore egonda, lanak banatzea ezinbestekoa zen eta horretarako bilera asko egin zituzten aurreko asteetan. Herriaren erantzuna ezin hobea izan zen eta egubakoitzean egindako lana bikaintzat jo daiteke. Giro txarrari aurre egiteko, bertako trikitilariek eta bandakoek musikaz berotu zuten giroa.

Jai egun ofiziala izan zen Oñatiko enpresa gehienetan eta asko nabaritu zen

Egun berezia zen Oñatin. Txirrindularitza asko maite duen herria da eta horrelako egun berezi batek behar zuen tratamendua izan zuen. Aurreko urtean Udaletik gutun bat bidali zen enpresa guztietara egutegian jai egun ofiziala hartu zezaten eskatuz. Debagoieneko hainbat langilek lanean diharduten enpresa askok bat egin zuten deialdiarekin eta askok goizean lasterketa Arantzazuko igoeran ikusi ondoren, ederto bazkaldu eta arratsaldeko erlojuz kontrakoa ere errepidetik ikusi zuten.

KULTURA

Aisialdia eta Zerbitzuak

• Afrikara bidaiatu zuten ikusleek 'Lezio berri bat ostrukari buruz' antzezlanarekin Bergaran | 24
• Discipline taldeak kontzertua egin zuen egubakoitzean Arrasateko 3.60 aretoan | 25

AEBtako Chuck Prophet kantaria Oñatiko Gaztelekuan izan zen zapatuan | 25

10. URTEURRENA



AINTZANE AGIRRE

Esteban Urzelaik zuzendu zuen beste behin ere Oñatiko Ganbara abesbatza. Abesbatza guztiek elkarrekin aritu ziren kontzertuaren amaieran.

URTEURREN KONTZERTUA I ZAPATUAN OÑATIKO ABESBATZEK PARTE HARTU ZUTEN GANBARA ABESBATZAREN URTEURREN JAIALDIAN

Oñatiko Ganbara Abesbatza eta adiskidetasunaren goraipamena

Oñatiko Ganbara abesbatzak hamar urte egin dituela eta, kontzertua antolatu zuten Oñatiko pilotalekuan. Ganbarakoek lagun izan zituzten herriko beste hiru abesbatzak ere

Inazio Arregi

Ganbara Txikitxoa, Ganbara Txiki eta Oñatiko abesbatza lagun zituztela egin zuten kontzertua Oñatiko Ganbara abesbatzakoek. Zapatukoa ere maila handiko emanaldia izan zen eta horren testigu izan genuen gure kronista.

Lagun asko izan zituzten pilotalekuko harmailetan: lehen urteetako partaideak (bat baino gehiago penaz korua utzi behar izanagatik), J. Busto konpositore ezaguna (O.G.A.-k Gipuzkoako koruentzat ispilu izan beharko lukeela esanez), Burgosko La Cantoria koruko partaideak beren kasa etorrita ("Kantaldi batean gerta dakizukeen txarrena hauen ondoren kantatu beharra da" zioen haietako batek), Cocentainako jaialdi eta ibilaldietan taldearen gidaria izan zen eta orain laguna den Mari, eta nola ez, tabernako barra ostetik koruari orduak eta maitasuna eskaini dizkion Antton Elorza, kolakaoak prestatzen esku bikaina izateaz aparte, koruko kontu askoren jabe, eta oholtza gainean komunikatzaile aparta (A zer nolako saioa larunbatekoa! Aurkezlea ere txiki utzi zuen).

LAGUN GUZTIAK GOGOAN

Birtuosismoa eta bikaintasuna alde batera utzirik, parte hartzea lehenetsi eta koruaren bizitza laburrean zeresana izan duten guztiak gogoratu eta errekonozitu nahi izan zituen Ganbarak zapatuan.

Aitor Elduaienek diapositiba eta musikaz lagunduta izan zuen koruaren ibilbide laburra kontatzeko ardura. Avileseko une gazi-gozoak, eta Ejea, Cocentaina eta Rojaleseko arrakastak ekarri zizkigun gogora, J.A. Azpiazuk prestatutako narrazioa lagun.

> Koruaren bizitza laburrean zeresana izan dutenak gogoratu zituzten
>
> Ikusleekin batera kantatu zuten, besteak beste, *Nerea izango zen*

Musika kontaketaren euskarri eta laguntzaile bihurtuz, *Carmen amicitiae* eskaini ziguten hasierako uneen oroigarri. *Se equivocó la paloma* Avileseko tristurak ez ahazteko, eta *S´ha feito de nuey* ondorengo arrakasten ikur.

Ikusleekin batera kantatutako *Nerea izango zen* eta beste hainbat kanta ere entzun ahal izan ziren.

Ganbara Txikitxoa, Ganbara Txiki eta Oñatiko abesbatza eta hainbat musikari lagun, *Freedom Trilogy*rekin amaitu zuten jaialdia, pilotalekua bete zutenen txaloen artean.

• HERRIKO ABESLARIAK ELKARTU ZIREN GANBARA ABESBATZAREN 10. URTEURRENEKO KONTZERTUAN

GANBARA ABESBATZA. Esteban Urzelairen zuzendaritzapean aritu ziren Ganbara Abesbatzako kideak Oñatiko pilotalekuan. Emanaldi bikaina eskaini zieten bertaratutakoei eta hasieratik hamar urteko ibilbidean lagundu dietenei eskerrak eman zizkieten abeslariek eta zuzendariak.

OÑATIKO ABESBATZA. Oñatiko abesbatzako kideak euren txandaren zain harrapatu genituen, festa-jantzi dotoreenak aldean zituztela. Adi-adi jarraitu zuten eurek ereindako haziari esker sortutako abesbatza gazteagoen kontzertua; ohore handia Oñatiko abeslarien maila ikusita.

OÑATIKO TXIKIAK. Ganbara Txiki eta Ganbara Txikitxoa abesbatzak dira atzetik gogor eragiten datozenak. Koloretako elastikoak aldean zituztela taula gaina kolorez jantzi zuten eta eurak ere abeslari bikainak izango direla erakutsi zieten aho zabalik begira izan zituzten guraso, aiton-amona eta bestelako publikoari.

PILOTALEKUA GAINEZKA. Oñatiko pilotalekuak hartu zuen zapatu gauean Oñatiko abesbatzen emanaldia. Aulki guztiak bete ziren Ganbara Abesbatzaren hamargarren urteurreneko kontzerturako. Abestien letrak eskuan hartuta hainbat kantu abestu zituzten abesbatzako kideekin batera. Kontzertu borobila.

OIHANA DIAZ | GANBARA ABESBATZAKO LEHENDAKARIA

"Lagundu, parte hartu eta kontzertura etorri ziren guzti-guztiei eskerrik asko"

Marijo Deogracias

Ganbara Abesbatzaren hasieratik ari da koroan abesten Oihana. 8 urtez Ganbarako presidente ere izan da. Zapatuko kontzertua oso ondo atera zela eta gustura daudela adierazi digu.

Zapatukoa eskerrak emateko kontzertua izan ei zen.

Lagundu diguten, parte hartu duten eta kontzertura etorri ziren guzti-guztiei eskerrak eman nahi dizkiet, kontzertuan egin genuen moduan. Jende askoren laguntasuna izan dugu eta, inor ahaztu barik, den-denei eskerrak emateko aprobetxatu genuen.

Kontzertu polita egin zenuten.

Oso ondo atera zen eta jende asko etorri zen gu entzutera. Horrelako kontzertu bat egiten genuen lehenengo aldia izateko oso ondo atera zela uste dugu.

Arrakastaz beteriko ibilbidea osatu duzue hamar urtetan. Zer esangura du horrek zuentzako?

Jasotako sari eta esker on horiek guztiak ondo egindako lanagatik izan dira eta eskertzekoak dira. Horri esker jendetza izan genuen zapatuko emanaldian.

Aurrera begira ze asmo duzue?

Maiatzean Oñati eta Azkoitiko musika egunetan arituko gara. Orkestra txiki batekin arituko gara eta esperientzia berria izango da, lehenengoz abestuko dugu eta orkestra batekin. Bestetik, egubakoitz honetan, Pasai Antxon kontzertua daukagu.

Urte honetan gauza asko ditugu egiteko, baina lasai hartuko dugu; urrian, esaterako, Austriara bidaiatuko dugu. Baliteke kontzerturen bat egitea han bidaia aprobetxatuz, baina kontzerturik atera ez arren, bidaia egingo dugu.

Bizitako zein une duzu gogoan?

Den-denak izan dira momentu politak. Hamargarren urteurreneko jaialdirako gidoia idazten ere gogora ekarri ditugu eta geratzen dena da lagun talde ederra sortu dugula guztion artean; koro koadrila izateaz gainera lagun koadrila eratu dugu. Bidaiak, oporraldiak eta irteera asko egin ditugu elkarrekin, gure artean sortu den adiskidetasunagatik.

Oso batuta gaude. Abestza moduan, jakina, iazko urtea izan da gorengoa jaso ditugun sari guztiengatik.

Diskoa ere kaleratu duzue horri guztiari esker.

Lehenengo 1.000 aleak diskoa atera eta berehala saldu ziren eta bigarren tirada bat egin dugu. Dagoeneko 300 bat disko saldu dira.

Zortzi urte daramatza Oihanak Ganbara Abesbatzaren lehendakari karguan.

Zapatuan aritu ziren abeslari gazteenak ere. Zer azpimarratuko zenuke?

Txikienekin asmatzea zaila da; txikienek 4 urte ditu eta. Baina Ganbara Txikin harrobi oso ona dagoela esango nuke. Itxura oso ona erakutsi zuten zapatu gaueko kontzertuan.

Arabako 3. bertsolari onena da Manex Agirre

Asteleheneko Goienkaria

Urte honetan bertsotan aritzeko aukera gutxi izan dituen arren, hirugarren geratu zen Manex Agirre aramaioarra Arabako Bertso Txapelketan. Puntuka alde handia atera zioten Asier Otamendi txapeldunak eta Oihane Perea txapeldun ordeak. Manexek 362 puntu lortu zituen; txapeldunak 565,5 eta txapeldunordeak, berriz, 562,5. Hala ere, gorabeheratsu ibili zen arren, bertso ederrak osatu zituen. Hurrengo urtean, plaza gehiago eginda, gorenera iristeko moduan izango da aramaioarra.

Asier Otamendik zortzigarrenez jantzi du Arabako txapela.



Agirrek 362 puntu batu zituen.

ANTZERKIA I **EZ DOK HIRU BIKOTEATROA**

Bergaratik Afrikara eraman zituzten ikusleak 'Lezio berri bat ostrukari buruz' antzezlanarekin egubakoitzean

Non. Bergarako Zabalotegi aretoan.
Zenbat jende. Hamabost bat lagun.
Iraupena. Hiru ordu laurden.

Monika Belastegi

Ez Dok Hiru Bikoteatroak Bernardo Atxaga idazlearen *Lezio berri bat ostrukari buruz* testuan oinarritutako antzezlana egin zuen egubakoitzean Bergarako Zabalotegi aretoan.

Patxo Telleria eta Mikel Martinez aktoreak izan genituen taula gainean eta bien artean eraman zuten aurrera Atxagaren narrazio poetikoa; bi pertsonaien artean banatu zuten testuaren irakurketa: batak –Patxo Telleriak– narrazioaren ildoa zeraman bitartean, bestea –Mikel Martinez–, narrazioan tartekatuta zeuden poema eta jokoez arduratu zen. Bata, idazlea zen; bestea, margolaria. Biek kontatzen zutena indartzeko, soinuak eta irudiak erantsi zizkieten oinarrizko testuaren hitzei eszenatokian egokitutako pantaila baten bidez, hirugarren pertsonaia bilakatzeraino.

AFRIKARA BIDAIA

Lezio berri bat ostrukari buruz izeneko testua, ostrukaren hitzekin eta zenbait gaiekin jolasteko aitzakia izateaz gain, Afrikara bidaiatzeko aitzakia ere bada. Halaxe egin zuten Zabalotegin batu zirenek, eta Afrikan askok igarotzen duten goseaz ere jabetu ziren. Bestalde, narrazio asko eta askotan umoreak ezusteko bukaerara eraman zituen ikusleak. Narrazio guztia azkeneko mezura iristeko jokoa izan zen; mezu dramatiko batera. Gainera, narrazioan barrena erabilitako doinua umoretsua izateak areagotu egin zuen dramatikotasun hori.

> Narrazio guztia mezu dramatikora iristeko jokoa izan zen

Ia 500 lagun batu ziren Udal Musika Banda entzuteko

Hileroko kontzertua egin zuen Bergarako bandak domekan. Ohi duen bezala egindako egitaraua askotarikoa izan zen

M.B.

Lehenengo, kaleak alaitzeko kalejira egin zuen Bergarako bandak domekan. Haren ondotik, berriz, hileroko kontzertua Udal pilotalekuan. Jarraitzaile ugari ditu bandak herrian eta horren adibide izan ziren batutako ia 500 lagunak. Emanaldia ederra eta askotarikoa izan zen, baina horretara ohituta gauzka Bergarako bandak: *La gracia de Dios*, pasodoblea; *Euryanthe*, obertura; *Carmencita* baltsa eta *Robin Hood*, suite sinfonikoa jo zituzten, besteak beste.

AINTZANE AGIRRE

Alfredo Gz. Chirlaqueren zuzendaritzapean jardun zuen bandak.

LOIOLA KLINIKA

BEGIETAKO KLINIKA
Begietako mikrokirurgia:
Kataratak: Miopia / Hipermetropia.
Bitreo-erretinako gaixotasuna: Erretina-askatzea / Laser tratamendua. Termoterapia / Makulako gaixotasunak / Erretinopatia diabetiko konplikatua

Manuel Salaberria *Mediku oftalmologoa*

AZPEITIA / KLINIKA: Loiola auzoa 25 C. T: 943 15 17 52. F: 943 15 18 91
DONOSTIA / KONTSULTA: Zubieta 11-1. T: 943 44 46 79

AINTZANE AGIRRE

Musika tresna asko erabili zituzten kontzertuan Chuck Prophetek eta The Mission Express taldeak.

Eskarmentu handiko musikarien emanaldi bikaina

Europan egiten ari den biraren barruan Oñatin egin zuen Euskal Herriko emanaldi bakarra Chuck Prophetek

Non. Oñatiko Gaztelekuan.
Zenbat jende. 130 bat lagun.
Iraupena. Ia bi orduz aritu ziren taula gainean, jarraian.

Asteleheneko Goienkaria

Chuck Prophet estatubatuarraren zaleak elkartu ziren Gaztelekuan zapatu gauean, pop-rockaren beteranoaren emanaldia entzutera. Kontzertuaren hasiera ordua asko atzeratu zen, Athletic eta Realaren arteko derbya zela eta. 22:00etan barik gauerdian igo ziren taula gainera Chuck Prophet eta bere taldekideak.

ZALE BETERAKOAK

Kontzertu bizia egin zuten. Ia bi orduz jarraian aritu ziren eta azkeneko kantua bis eginez amaitu zuten. Entzuleak ere beteranoak ziren; betiko jarraitzaileak. Kanpotik jende asko hurbildu zen Oñatira estatubatuarrak Euskal Herrian egin duen kontzertu bakarraz gozatzera.

80ko hamarkadan sortu zen New Rock delako estiloaren ordezkari izan zen bere sasoian eta zapatuan disko berria aurkezten izan zen Oñatin: *Age of Miracles*. Diskoan bere rock doinuak hip hoparekin nahasten ditu, bai eta funky eta soularekin ere.

EMANALDI INDARTSUA

Atsedenaldirik egin barik jardun zuen musikari beteranoak. Musika tresna asko erabili zituzten: 3 gitarra, organoa, gitarra akustikoa... Prophetek bi mikrofonorekin jardun zuen, ahots efektuak ere erabiltzen baititu zuzenekoetan.

Entzuleak gustura atera ziren emanalditik eta bost eurogatik lehen mailako musikariak entzuteko aukera izan zutelako pozik, gainera.

3.60 aretoa leporaino bete zuten Discipline talde holandarraren zaleek

Taldea Europan zehar bira egiten ari da eta Arrasateko emanaldian herriko Des-Kontrol izan zuten hasierako talde

M.D.

Arrasateko 3.60 aretoan batu ziren inguruko eta atzerriko punk oi! eta hard core doinuen zaleak. Discipline talde holandarrak kontzertua egin zuen han eta aretoa gainezka jarri zuten bertako zaleek eta Bordele, Zaragoza, Paris, Vigo eta beste hainbat lekuetatik etorritako jendeak.

ERRITMO GOGORRAK

Gaueko 23:00etan hasi zen emanaldia. Bilboko Suspenders taldekoek ekin zioten emanaldiari. Euren zaleak ekarri zituzten eta etxean moduan aritu ziren street punk doinu sendoekin.

Herrian jo zuten Des-Kontrol taldekoek eta ondo baino hobeto aprobetxatu zuten. Taldea gaztea da, baina maila baduela erakutsi zuen eta publikoari gustatu egin zitzaion. Discipline taldekoak ere, gaueko izarrak, gustura geratu ziren Des-Kontrolekoek egindako lanarekin. Holandarrek hard core tradizionala egiten dute eta aretoa bere gorenera iritsi zen taula gainean agertu zirenean, 02:15ak aldera amaitu zen kontzertua.

Soinuan Soinuako Josema aritu zen eta 3.60 aretoko David izan zen argien arduraduna.



AINTZANE AGIRRE

Des-Kontrol taldekoak 3.60 aretoan egindako kontzertuan.

Apirileko I. Musikaldia hasi zen egubakoitzean Arrasaten. Ekimenaren nondik norakoak ezagutu guran Ines Aldai kultura zinegotziarekin izan gara hizketan. "Herrian zegoen musika eskaintza txikia zela ikusita hasi ginen ekimenari forma ematen" aitortu digu Inesek gustura. Laguntasuna ere izan dute ganbera musika zikloa eratzeko. Azkenean zortzi emanaldiko egitaraua osatu dute apirilerako, San Joan Bataiatzailearen parrokian eta Amaia antzokian.

INES ALDAI | ARRASATEKO KULTURA ZINEGOTZIA

"Herrian zegoen musika eskaintza txikia zelako ekin genion Musikaldia antolatzeari"

Marijo Deogracias

"Udaberriko kontzertuak. Apirileko I. Musikaldia" musika saioa antolatu duzue. Zergatik honelako musika zikloa?

Hasteko, herrian zegoen musika eskaintza txikia zelako; oso gauza gutxi zeuden musikarekin loturikoak eta kargua hartu nuenean aldatu nahi izan nuen gauzatariko bat izan zelako. Herritar askok herritik kanpora jotzen du kultura-eskaintzaren bila. Lortu nahi dena da jendeak "herrian ezer ez dagoelako" aitzakia ez izatea, kanpora joatea erabakitzen duenean. Kanpora joatea erabakitzea ez dadila izan ezer antolatzen ez dugulako.

Bestetik, estilo honetako musikaren eskaintzarik egoten ez delako.

Hilabete osoko egitaraua antolatu duzue. Ze irizpide jarraitu duzue?

Urtebete egin dugu ideiarekin bueltaka forma jakina eman diogun arte. Hasiera batean hilero kontzertu bat egitea izan zen proposamena, baina horrela antzokiko hileroko egitarauan eragingo genuke. Gero etorri da emanaldi guztiak hilabete oso baten batzea. Andoni Sierrak, Conductos Ensemble taldeko kideak, lagundu digu egitaraua osatzen eta berari zor diogu eratutako programa. Izan ere, Arrasate Musikalek Juanito Artzamendiri egingo dion omenaldiaren antolaketan buru belarri sartuta ari dira. Horregatik onartu genuen Andoni Sierraren laguntza.

Urteroko musika eskaintza izateko gogoz jaio da Apirileko I. Musikaldia ala zein da zuen asmoa?

Udaleko nire gestioari dagokionez, ez nuke honekin bakarrik geratu nahi. Musika eskaintza, antzerkiarena edo bestelako kultura ekitaldiena legez, gehitu nahiko nuke. Musika zalea naiz eta hilero antolatu nahiko nituzke saioak.

Baduzu beraz, bestelako ekimenik esku artean.

> "Askok herritik kanpora jotzen dute kultura eskaintzaren bila 'herrian ez dagoelako' aitzakiarekin"

> "Antolatzen hasi ginenean hilero kontzertu bat egitea izan zen proposamena"

Lehenengo, garrantzitsuena, antolatu dugun ekimen hau ondo ateratzea da. Hala ere, aitortuko dizut ez dela izan hau musika eskaintza gehitzeko izan nuen lehenengo asmoa. Aurretik musikari gazteei begira emanaldi handi bat egin nahi izan nuen; herriko talde guztiek jotzeko aukera izango zuten emanaldia. Honek, baina itzelezko antolakuntza eskatzen du eta, gainera, taldeen artean aukeraketa egitea ekarriko luke. Eta aukeraketak egin behar izaten direnean, kontrako iritziak erraz zabaltzen dira. Dena dela, Musikaldiak jarraipena izango du aurrerantzean ere.

Astebururo bi kontzertu egongo dira. Hurrengo astebururako zer izango da?

Egubakoitzean, San Joan Bataiatzailearen parrokian izango da emanaldia, 20:30ean. Emanaldi berezia izango da, arpa entzuteko aukera ez baita askotan izaten. Cristina Sanchez bilbotarra arituko da; gaur egun, Aita Madinaren lanekin bigarren CDaren grabaketa prestatzen ari da.

Zapatuan, berriz, Amaia antzokian izango da saioa. Cadem hari laukotea arituko da, 20:30ean. Errumaniako, Zaragozako eta Cartagenako musikariez osatutako laukotea da; esperientzia handiko musikariak dira eta Bach, Mozart, Turina eta Dvorak konposatzaileen lanak joko dituzte.



ARTXIBOA

Musikaldiak jarraipena izango duela azaldu du Ines Aldai zinegotziak.

Lausardi koru sinfonikoaren 'The Crucifixion' lanak ireki zuen Arrasateko Musikaldia

Joan zen egubakoitzean hasi zen Apirileko I. Musikaldia Arrasaten eta Bergarako Orfeoiak, Arrasateko Goikobalu Abesbatzak eta Oñatiko abeslari batzuek osatzen duten Lausardi Koru Sinfonikoak egin zuen estreinaldia. Iñaki Maidaganen zuzendaritzapean aritu ziren guztiak Aitor Olea organo jotzailea, David Azurza tenorea eta Jesus Garcia baritonoak lagunduta.

San Joan Bataiatzailearen parrokian jende dezente elkartu zen, herrian abesbatzek egiten dituzten emanaldietan baino jende gehiagok erantzun zion deialdiari. Eta gustura geratu ziren entzuleak; izan ere, kontzertu borobila izan zen egubakoitzekoa.

Organo jotzailea bikain aritu zen eta baritonoak, bere ibilbideari jarraituz, maisutasunez abestu zuen, ahotsa ateratzen behar zenetan eta era finean partiturak horrela eskatzen zuenetan. Azurzak, nekeak eraginda ahul samar hasi bazen ere, kontzertuak aurrera egin ahala indarra berreskuratu zuen eta txukun aritu zen.

Lausardi abesbatzak kontrastez beteriko emanaldia eskaini zuen, eta "Crucifixion" abesten duten unea benetan bortitza izan zen.

Entzuleek esan zutenez kontzertu borobila osatu zuten Lausardikoek eta aukeratutako lana ere bikaina izan zen.

John Stainer konpositorearen *The Cruxifixion* lana Euskalduna jauregian erakutsi zuen Lausardik Arrasaten aritu aurretik eta Musikaldia estreinatzeko egokia iruditu zitzaien berriz ere lan hori abestea. Orduan ere arrakasta izan zuten Debagoieneko abeslariek.

San Joan Bataiatzailearen parrokian 60 bat lagun egon ziren egubakoitz iluntzean.



AINTZANE AGIRRE

Lausardi koru sinfonikoa Arrasateko San Joan Bataiatzailearen parrokian, egubakoitzean.

Denetariko gaien inguruko lau argazki erakusketa izango dira aste honetan

Arrasaten, Oñatin, Eskoriatzan eta Bergaran dira erakusketak. Tren zaharra, liburuak, eguneroko gauzak eta Sahara, gaiak

Leire Kortabarria

Argazkigintza da nagusi egunotan Debagoienean izango diren erakusketen artean; deigarria da mota horretako erakusketa kopurua, lau, hain zuzen ere. Gai aldetik barietate handikoak dira, gainera.

Dagoeneko zabalik daude batzuk. Eskoriatzan, tren zaharraren gaineko erakusketa zabaldu zuten zapatuan, eta zabalik jarraituko du hilaren 23ra bitartean. Inkernu tabernan dago eta Aitzorrotz kultura elkarteak antolatu du.

Irakurzaletasuna da Arrasateko Monterron jauregian dagoen erakusketaren gaia. Irakurketaren gozamenaren inguruko argazki erakustaldi hori Nazioarteko Liburuaren Eguna dela eta antolatu dute, Salamancako Udal Liburutegiaren eskutik. Astegunetan dago zabalik erakusketa, 10:00-13:00 eta 16:00-20:00 ordutegian.

LASTER, BESTE BI

Datozen egunotan beste bi erakusketa zabalduko dituzte: eguenetik, hilaren 14tik, Eba Ramirê argazkilari andaluziarraren lanak ikusteko aukera izango da Bergarako kultura etxean. Eguneroko gauzen argazkiak ateratzen ditu.

Sahara izango da beste erakusketa baten ardatza. Hori egubakoitzean, hilak 15, izango da zabalik, Oñatiko kultura etxean. Errekalde Herri Eskolak antolatu du.

IKASTAROA ARRASATEN

Argazkiak ateratzea gustuko duten emakumeek argazkigintza digital ikastaro baten izena emateko aukera dute, Arrasateko Emakume Txokoan. Izenematea apirilaren 25etik 29era izango da zabalik; ikastaroa bera maiatzean emango dute.

Labur

Taila egiten edo Afrikako perkusioa jotzen ikasteko hastapen tailerrak

Zenbait ikastarotan izena emateko epea zabalik dago. Arrasateko Arte tailaginen elkarteak hasiera mailako taila ikastaroa antolatu du apirilaren 19tik aurrera. Izena emateko, honako telefonoetara deitu behar da, gau aldera: 943 79 77 57 (Jose Mari) edo 943 79 40 79 (Felix).

Bestetik, aukera dago oraindik Bergarako Jardun elkarteak antolatutako Afrikako perkusio ikastaroan izena emateko. Horretarako, jo euren bulegora edo deitu 943 76 36 61 telefonora.

Ardoaren gaineko webgune berri bat, Mikel Garaizabalen eskutik

Joan den astetik, sarean dago Mikel Garaizabal enologo elorriarraren *www.catarvino.com* ardoaren gaineko webgunea. Ardoaren kultura eta zentzuzko kontsumoa bultzatzeko egin du webgune hori, eta adituari zein kaleko jendeari dago zuzenduta.

Nahikari kafetegia, artearen gaineko Argentinako aldizkari baten albiste

Bergarako Nahikari kafetegiak erakusketak antolatzen ditu urte osoan. Jarduera hori dela eta, Argentinako *EPA (Espacios Placeres Arte)* aldizkariak kafetegi horri eskaini dio bere lehen edizioko tarte bat, *Un lugar en el mundo* delakoa. Aldizkariaren gaineko berri gehiago, *www.revistaepa.com.ar* webgunean.

Jone Telleriaren lanak egongo dira hil honetan Nahikarin. 13 margolan eta argiztatutako ikus-kaxa batek osatzen dute. Intuizioz eraikitako paisaia baten espresio figuratiboa eransten du.

Hitzorduak



ASPALDIKO PARTETIK, LIBURU AZOKA EGITEN DABILTZA ARRASATEN | Hilaren 17ra, domekara, bitartean dago zabalik Seber Altube plazan

Hamar urteren ostean, Liburu Azoka berpiztu dute Arrasateko udal arduradunek, Nazioarteko Liburuaren Eguna dela eta. Euskadiko Liburuaren Komisioaren eskutik antolatu dute. Seber Altube plazan dago egunotan, honako ordutegian: 11:00-14:00 eta 17:00-21:00.

Eskaintzaren gehiengoa euskaraz da, eta ikusentzunezkoek ere osatzen dute. Produktu atera berriek %10eko deskontua izango dute, eta bigarren eskuko liburuak ere badaude aukeran. 12 postu daude azokan, beste hainbeste argitaletxerenak, eta Foru Aldundiak ere berea ipini du.

ZINEMA |

• ***Largo domingo de noviazgo* filma emango dute Arrasaten**
Amaia antzokian emango dute film hori gaur, astelehena, 20:30ean. Gaur ikuslearen egunа denez, 3 euro da sarrera.

• ***Hitch,* filma ikusteko aukera dago gaur, astelehena**
Oñatiko kultura etxeko zinema aretoan emango dute film hori, 19:30ean. Ikuslearen egunа denez, 3 euro da.

• ***Conociendo a Julia* filmaren emanaldia izango da Elgetan**
Etzi, eguaztena, emango dute film hori Espaloia kafe antzokian, 21:30ean.

• ***Como una imagen,* Oñatiko eta Arrasateko zineklubean**
Eguenean, hilak 14, emango dute film hori Arrasateko Amaia udal antzokian, 20:30ean, eta Oñatiko kultura etxeko zinema aretoan, 20:00etan, jatorrizko bertsioan eta azpitituluekin azken hori. 4 euro da sarrera.

TURISMOA |

• **Bergarako turismo bulegoa, Aste Santuko denboraldian**
Denboraldi horrek apirilaren 17ra bitartean irauten du. Epe horretan, honako ordutegia izango du bulegoak: astelehenetik zapatura, 10:30-14:00 eta 16:30-19:30 bitartean; domeka eta jaiegunetan, 11:30-14:30 bitartean.

MUSIKA |

• **Kontzertu akustikoa Bergarako Cafe kafetegian**
Aitor Pedrejon bergararrak eta Jim TNT arrasatearrak emanaldi akustiko lasaia egingo dute eguenean, hilaren 14an Cafe kafetegian (Irala kalea, 10). 21:30ean izango da eta sarrera doan.

• **Arrasateko literatura solasaldietako izenematea**
Izena emateko aukera dago Monterronen edo honako telefonoetan: 943 77 01 05 edo 943 77 07 68. Solasaldiak apiriletik ekainera bitartean izango dira.

ANTZERKIA |

• **Ume eta helduendako ipuin kontaketa saio bana**
Bihar, martitzena, bi ipuin kontaketa saio egingo ditu Coralia Rodríguez kubatarrak Arrasateko kultura etxean. Umeendakoa 18:00etan izango da; helduendakoa, 19:30ean.

LEHIAKETAK |

• **Bergara Hiria argazki lehiaketa deitu dute**
30 x 40 cm-ko kartulinatan aurkeztu behar dira argazkiak; atzealdean, egilearen datuak. Zuri-beltzeko eta koloretako argazkiak hartuko dituzte, gehienez ere bakoitzeko lau. Teknika eta prozedura libreak dira. Bergarako Udaletxera eraman behar dira, edo posta zertifikatuz kultura etxera bidali maiatzaren 4a baino lehen. 440 euro banatuko dituzte lau saritan. Argibide gehiagorako, deitu 943 76 30 90 telefonora.

• **VI. Legazpi Hiria argazki lehiaketa deitu dute**
Siderurgia ondare industrialaren gaineko argazkiekin parte hartu beharko da. Lanak Legazpiko 4 Posta Leihatilara bidali behar dira maiatzaren 6ra bitartean. 660 euro banatuko dituzte saritan kategoria bakoitzean. Argizaiola lehiaketarako sailkatzeko baliagarria da sariketa hori.

• **Abadiñoko San Trokaz kartel lehiaketa deitu dute**
Irudia librea da, eta derrigorreko testua, Abadiño San Trokazak 2005. 50 x 60 cm-ko euskarrian aurkeztu behar dira lanak apirilaren 23aren bitartean, Abadiñoko udaletxean, Txanporta kultura etxean edo Traña-Matienako udal bulegoan. 300 eta 100 euroko sari bana emango dute.

• **15. Portugalete Uri Urena ipuin lehiaketa, zabalik**
16-30 urte bitarteko edozeinek parte har dezake. Gaia librea da. Lanak Portugaleteko udaletxera bidali behar dira irailaren 26ra bitartean. Honako sariak banatuko dituzte: 1.700 euro lehenengoari, 1.000 bigarrenari eta 550 hirugarrenari.

Jaiotakoak

Maider Barbero Chaves
Arrasate • 3,000 Kg. Apirilak 2. Gurasoak: Luis Miguel (Arrasate) eta Paki (La Linea, Cadiz). Argazkian: Markel anaiarekin.

Martin Berezibar Arevalo
Eskoriatza • 4,320 Kg. Apirilak 5. Gurasoak: Oskar (Arrasate) eta Marimar (Eskoriatza). Argazkian: Matin lo.

Maia Ayastui Romero
Arrasate • 3,700 Kg. Apirilak 5. Gurasoak: Mikel (Arrasate) eta Mertxe (Aretxabaleta). Argazkian: Maia bapo lo.

Naia Carrero Aranburu
Arrasate • 3,330 Kg. Apirilak 6. Gurasoak: Gustavo eta Izpiñe (Arrasate). Argazkian: Naia, Mari amonarekin.

Jon Barrenetxea Garcia
Arrasate • 3,500 Kg. Apirilak 6. Gurasoak: David (Soraluze) eta Agurne (Arrasate). Argazkian: Jon amarekin.

Maider eta Izaro Otero Prieto
Bergara • 2,420 etya 2,460 Kg. Apirilak 6. Gurasoak: Rafa eta Mila (Bergara).

Naroa Petralanda Garate
Eskoriatza • 3,100 Kg. Apirilak 7. Gurasoak: Jose Angel eta Mirari (Eskoriatza).

Ane Alkorta Barrutia
Bergara • 3,100 Kg. Apirilak 7. Gurasoak: Iñigo eta Mirari (Bergara). Argazkian: Ane bapo lo, kuman.

Elene Lezeta Alberdi
Bergara • 3,350 Kg. Apirilak 8. Gurasoak: Jon (Donostia) eta Irene (Bergara). Argazkian: Elene amaren besoetan.

sms mezuak

- Zorionak, Monika. Goienako zure lankide guztien partez eta bereziki ASTELEHENEKO GOIENKARIKO koadrilaren partez! Jesukristoren eguna eguenekoa! Urte askotarako!
- Monika, ez ahaztu eguenean bazkaria daukagula. Kafeak zure kontu, ezta!
- Oñatiko neska koadrila gara eta Arrasateko mutilak ezagutu nahi ditugu. Erantzun mezu hau.
- Zorionak Oñatiko Ganbara Abesbatzari. Beste 10 urtez gutxienez jarraitu dezazuela gure belarrien gozamenerako.
- Realak ezin izan zuen, baina aupa mutilak! Hurrengoan izan beharko da Deporren aurka. Nekorak janda etorri eta ribeiro apur bat edan nere partez.
- Aupa, Eibar! Lehenengo mailan izango zarete hurrengo denboraldian.

Baita
SMS bidez ere!

Bidali mezua:
gnkzorion
[laga tartea]
[mezua] 7744 zenbakira.

Hurrengo
Asteleheneko
Goienkaria-n
irakurri ahal izango du berak zure mezua...

SMSaren kostua 0,90 euro+BEZa

Zorion agurrak

ARRASATE
Jokin Beitia
Martxoaren 25ean, 4 urte. Zorionak eta muxu bat! Aitaita eta osabak.

ARRASATE
Danel Ezpeleta
Martxoaren 30ean, 1 urte. Zorionak! Aiton- amonak eta osaba-izebak.

ARRASATE
Haritz Gallastegi
Apirilaren 2an, 6 urte. Zorionak eta muxu bat! Familiako guzti-guztiak.

ARRASATE
Malen Murgiondo
Apirilaren 5ean, 6 urte. Zorionak eta muxu bat! Etxekoak.

ARRASATE
Deiane Flores
Apirilaren 6an, 8 urte. Zorionak eta muxu bat! Familiakoak.

ARRASATE
Igor Urra
Apirilaren 9an, 6 urte. Zorionak! Maitasunez, etxekoak.

ARRASATE
Izaro Uribarren
Apirilaren 10ean, 5 urte. Zorionak eta muxu bat! Etxekoak.

ARRASATE
Garazi Garitaonaindia
Apirilaren 12an, 8 urte. Zorionak! Etxekoak.

BERGARA
Xabi Azpiazu
Apirilaren 5ean, 6 urte. Zorionak eta urte askotarako ! Etxekoak.

BERGARA
Ainhoa Salillas
Apirilaren 9an, urtebete. Zorionak! Etxekoak, bereziki Unai.

BERGARA
Maria Edroso
Apirilaren 11n, 4 urte. Zorionak eta urte askotarako! Gurasoak eta Mikel.

BERGARA
Leire Sahuillo
Apirilaren 11n, 13 urte. Zorionak eta urte askotarako! Unai eta Ainhoa.

BERGARA
Unai Salillas
Apirilaren 13an, 3 urte. Zorionak! Etxekoak, bereziki Ainhoa.

BERGARA
Beñat Landa
Apirilaren 11n, 7 urte. Zorionak eta urte askotarako ! Etxekoak eta Sara.



BERGARA
Bittor Poza
Apirilaren 13an, 9 urte. Zorionak! Etxekoak, batez ere, Lorea.

BERGARA
Aitor Zurro
Apirilaren 13an, 7 urte. Zorionak eta urte askotarako! Etxekoak.

OÑATI
Oier Perez de Arenaza
Apirilaren 10ean 4 urte. Zorionak familixa danan partez.

OÑATI
Irati Madina
Apirilak 15ean, 6 urte. Zorionak eta urte askotarako! Patxo bat. Familia.

OÑATI
Aitor Freire
Martxoaren 27an, urtebete. Zorionak, potxolo! Familiakoak.

ARETXABALETA
Irati Mendieta
Apirilaren 7an, urte bat. Zorionak Irati! Aitatxo, amatxo eta familiakoak.

ARETXABALETA
Beñat Basabe
Apirilaren 13an, 4 urte. Zorionak! Malen, Nagore, Jone, Unai eta Mikel.

ARAMAIO
Amaiur Arana
Apirilaren 12an, urtebete. Zorionak eta muxu bat! Etxekoak.

ELGETA
Oxel Erostarbe
Apirilaren 12an, 26 urte. Zorionak eta urte askotarako! Lagunak.

Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak ASTELEHENEKO GOIENKARIAren bidez! Ekar ezazu bere argazkia, eta emaiozu ezusteko ederra!

Hildakoak

Ignacio Albisua Zangitu
Bergara, apirilaren 7an.
83 urte.

Alejnadro Aldama Cardenas
Oñati, apirilaren 7an.
74 urte.

Angel Nuñez Lopez
Arrasate, apirilaren 8an.
75 urte.

ESKELAK
ASTELEHENEKO GOIENKARIAN
82 euro
943 76 92 71

GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

Lehen zikloa
- Industri Elektronikan Ingeniaritza Teknikoa.
- Sistemen Informatikan Ingeniaritza Teknikoa.
- Kudeaketa Informatikan Ingeniaritza Teknikoa.
- Industri Mekanikan Ingeniaritza Teknikoa.
- Industri Diseinuan Ingeniaritza Teknikoa.
- Telekomunikazioetan Ingeniaritza Teknikoa (Telematika eta Telekomunikazio Sistemak).

Bigarren zikloa
- Automatika eta Industri Elektronikan Ingeniaritza.
- Industri Antolakuntzan Ingeniaritza.
- Informatikan Ingeniaritza.
- Industri Ingeniaritza.
- Telekomunikazioetan Ingeniaritza.

GOIERRIko Campusa

Lehen zikloa
- Industri Mekanikan Ingeniaritza Teknikoa.

JARDUNALDI IREKIAK

ARRASATEko Campusa
943 71 21 92
- 2. zikloa: maiatzak 26, 17:30etan.
- Biteri Ikastetxe Nagusia: ekainak 11, 11:00etan.

GOIERRIko Campusa
943 88 00 62
- apirilak 28, 17:30etan.

ENPRESA ZIENTZIEN FAKULTATEA

OÑATIko Campusa

Lehen zikloa
- Zuzendari Idazkaritza.

Ziklo luzea
- Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzan Lizentziatura.
  - Finantza Zuzendaritza.
  - Merkataritza Zuzendaritza.
  - Erakundeen Kudeaketa.

BIDASOAko Campusa
- Enpresa Zientziatzan Diplomatura.
  - Nazioarteko Merkataritza.
  - Enpresa Logistika eta Garraioa.

JARDUNALDI IREKIAK

OÑATIko Campusa
943 71 80 09
- apirilak 20, 18:00etan.
- maiatzak 12, 18:00etan.

BIDASOAko Campusa
943 63 91 29
- maiatzak 7, 10:00etatik 13:00etara.

HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA

ESKORIATZAko Campusa

Lehen zikloa
- Irakaslea, Haur Hezkuntza espezialitatea.
- Irakaslea, Hezkuntza Berezia espezialitatea.
- Irakaslea, Atzerriko Hizkuntza espezialitatea.
- Irakaslea, Heziketa Fisikoa espezialitatea.
- Irakaslea, Entzumena eta Mintzaira espezialitatea.
- Irakaslea, Lehen Hezkuntza espezialitatea.

Bigarren zikloa
- Psikopedagogian Lizentziatura.
  - Hizkuntzen Psikopedagogia.
  - Esku-hartze Psikopedagogikoa.

Ziklo luzea
- Giza Zientziak Lizentziatura.
  - Giza Zientziak Enpresari aplikatuta.
  - Giza Zientziak Informazio eta Komunikazioari aplikatuta.

JARDUNALDI IREKIAK

ESKORIATZAko Campusa
943 71 41 57
- apirilak 21, 18:00etan.
- maiatzak 19, 18:00etan.

inskripzio epea zabalik

www.mondragon.edu

MONDRAGON
CORPORACIÓN COOPERATIVA

Gaur irratian

Arrasate Irratia
FM 107.7

'Igo Autobusera' | 09:00

Hauteskundeak eta Baneki lehiaketa
Mario Zubiaga EHUko irakaslea 10:10ean autobusera igo eta hauteskundeen atarian giro politikoaz jardungo du. Horren ondotik, 10:35ean, Baneki lehiaketaren berri emango dute Lander Eskudero Debaguneko koordinatzaileak eta Mikel Aranburu aurkezleak.

Oñati Irratia
FM 107.4

'Neguko programazioa' | 12:00

Sakelako telefonoen erabilera gazteen artean
Gazteek sakelako telefonoak asko erabiltzen dituzte, eta eskola-orduetan horiek erabiltzeko debekua dute. Hori aztertuko du Oñati Irratiak. Horretarako, DBHko ikasketak ematen dituzten hiru zentrotako arduradunekin egongo dira.

Loiola Irratia
FM 99.8

'Kalez kale' | 12:00-13:00

Bergarako apirileko musika zikloa berbagai

Euskadi Irratia
FM 104.4

'Faktoria' | 10:30

Sendagai generikoak eta Hirugarren Mundua

Radio Euskadi
FM 98.2

'Bulevar' | 09:30

Josu Jon Imazi elkarrizketa egingo diote

Gaur telebistan

GOITB

'Baneki' Ibarreko ikasleekin saioa 21:00
12 eta 16 urteko gazteei zuzendutako saioa aurkeztuko du Mikel Aranburuk. Astelehenetan eta eguenetan.

13:45 Emisio hasiera.
13:50 Marrazki bizidunak: *Sherezade*. (Egubakoitzekoak emandakoaren errepikapena).
14:10 Marrazki bizidunak: *Lazkao Txiki.*
14:15 Berriak aurrerapena.
14:30 Ilunpean.
15:00 Eguzki lore.
15:30 Berriak aurrerapena.
15:45 *Klip@.* Gaur egungo musika taldeen bideoklipak. Hainbat musika estilo.
19:30 Emisio hasiera.
19:35 *Gaurkoak.*
19:45 *Klip@.*
20:00 *Berriak.* Deiane Arrietak aurkeztutako albistegia.
20:30 Marrazki bizidunak.
21:00 Baneki. Mikel Aranburuk aurkezten duen gazteei zuzendutako telebista saioa.
21:30 Itzulia 2005. Joan den astean Oñatin amaitu zen Euskal Herriko Itzulia, eta horren gaineko saio berezia.
22:00 Albistegia.
22:30 Derbia. UDAren eta Mondraren domekako derbiko laburpena.
23:00 Itzulia. 2005.
23:30 Gaurkoak.
23:45 Emisio amaiera.

ETB 1

Goenkalen, Nelsonek ez du egia esan gura 21:45
Khalafek Nelsoni esaten dio gurago duela Junek gorrotatzea egia esan baino. Bestalde, Jesus gero eta hobeto dago.

07:05 Tik Tak circus.
07:30 Betizu. *Doug, Hirukiak, Doremiren magia, Kong eta Sorginen aspertua.*
09:20 E-Klipse@.
09:45 Travel notes.
10:15 Elkartasunaren bideak.
10:50 Amama sukaldari.
11:05 Bertatik Bertara.
11:30 National Geographic. *Terrorismo nuklearra.*
12:25 Hitzetik hortzera.
13:05 Barne barnetik.
13:35 Betizu. *Burdin Ahoren* marrazki bizidunak ikusteko aukera Betizurekin.
14:00 Gaur Egun.
14:40 Postdata.
14:45 Eguraldia.
14:50 Hasiberriak.
15:15 Bidaide. *Basabizitzako Sekeretuak* eta *National Geographic.*
17:05 Sustraia.
17:35 E-Klipse@.
18:00 Iparraldearen orena.
18:05 Betizu.
20:25 Eguraldia.
20:28 Gaur Egun.
21:05 Bertatik Bertara, Estitxu Fernandezek aurkeztuta.
21:45 Goenkale.
22:25 Sorginen laratza.

ETB 2

Enekok ala Goikok, nork irabaziko du? 21:55
El conquistador del fin del mundo saioan finalera iritsi dira, eta ilunzean jakingo dugu nor den irabazlea.

07:10 Del país de los vascos.
07:40 Rutas de solidaridad. *Cuba: Zafra.*
08:05 Embrujada.
08:55 Forum.
09:30 El Punto.
10:10 Matrimonio con hijos.
11:10 Stargate. *Paraiso perdido.*
12:10 Se ha escrito un crimen.
13:55 Date el bote. Carlos Soberarekin.
14:58 Teleberri 1. Juan Carlos Etxeberria eta Estibaliz Ruiz de Azua.
15:55 Eguraldia. Ana Urrutiarekin.
16:00 Pasalo. Adela Gonzalez eta Iñaki Lopezekin.
18:25 Siempre cine. Zehaztu bariko filma.
20:20 Esta es mi gente. Klaudio Landarekin.
20:58 Teleberri 2. Julio Ibarrarekin.
21:50 Eguraldia.
21:55 El conquistador del fin del mundo. Julian Iantzik aurkezten duen saioa.
23:55 Documental.
01:00 La zona muerta. *Cicatrices* eta *El hijo espurio.*
02:45 Esta es mi gente. Klaudio Landak aurkeztutako programa.
03:30 Date el bote.
04:15 Pásalo. Adela Gonzalezekin.
06:00 Forum.

TVE 1

Ustezko afari erromantikoa izango du Anak 22:00
Umeek antolatuta, Fernandok eta Anak ustezko afari erromantikoa izango dute jatetxe ezagun batean.

06:00 Canal 24 horas.
07:00 Telediario matinal. Igor Gomezekin eta Susana Rozarekin.
09:00 Los desayunos de TVE. Pepa Buenorekin.
10:15 Saber vivir.
11:15 Por la mañana. Elkarrizketak, lehiaketak eta bestelakoak egiten dituzten magazina. Ana Blancok albiste aurrerapena egingo du.
14:00 Informativo territorial.
14:30 Corazón de invierno. Txutxumutxuen gaineko saioa Anne Igartibururekin.
15:00 Telediario 1. Ana Blanco eta Maria Escariorekin.
15:50 Diez líneas de El Quijote.
15:55 El tiempo.
16:00 Amor Real.
16:50 Te voy a enseñar a querer.
17:30 Obsesión.
18:30 Cuéntame cómo pasó. *Tiempo de capones y tortazos.*
20:00 Diez líneas de El Quijote.
20:05 Gente.
21:00 Telediario 2.
21:55 El tiempo.
22:00 Ana y los siete. *De mal en peor.*
23:30 59 segundos.
01:30 Telediario 3.
02:00 Siete dias.
03:00 Canal 24 horas.

La 2

'Los Lunnis', gaztetxoendako aproposa 13:00
Los Lunnis programan marrazki bizidunak eta umeei zuzendutako bestelako saioak ematen dituzte.

07:15 That´s english.
07:30 Los Lunnis. *Meme y el señor Bobo, Aventuras en pañales, Tweenies* eta *Los casos de Silvestre y Piolín.*
09:30 Aquí hay trabajo.
10:00 Tv educativa: la aventura del saber.
11:00 La botica de la abuela.
11:15 España.es
13:00 Los Lunnis. *Digimon, Arthur,* eta *La vaca Connie.*
15:15 Saber y ganar. Jordi Hurtadorekin.
15:40 Diez linea de El Quijote.
15:45 Grandes Documentales. *Mundo natural.*
16:55 Frontera límite.
17:30 Los Lunnis.
19:15 Padres en apuros.
19:30 Pueblo de Dios.
20:00 Informativo territorial.
20:30 Previo UEFA Champions League.
21:00 Vivir con Mr. Cooper.
21:30 Miradas 2.
21:55 Sorteo de la Bonoloto.
21:58 Diez lineas de El Quijote.
22:00 La 2 Noticias.
22:30 El Tiempo.
22:45 Crónicas.
23:30 Estravagario.
00:30 Metropolis.
01:00 Radio3.

Antena 3

Gonbidatu xelebreak 'Pasapalabra'-n 20:15
Silvia Jatok aurkezten duen lehiaketan, kultura orokorra eta umorea uztartzen dituzte, gonbidatuekin.

06:00 Las noticias de la mañana.
09:00 Ruedo Ibérico.
10:45 Cada día.
14:00 Los Simpson. *Especial noche de brujas II.*
15:00 Noticias 1.
15:45 La buena onda de la tarde. Alicia Senovillarekin.
18:00 Números locos.
19:00 El diario de Patricia.
20:15 Pasapalabra. Gonbidatuak: Falete, José *El Francés,* Irene Chamorro eta Amara Carmona.
21:00 Noticias 2.
21:45 El peliculón. *El rey escorpión.* Zuzendaria: Chuck Russel. 2002. Antzezleak: The Rock, Kelly Hu. Orain dela bost mila urte, Egipto prefaraonikoan, sekulako gerrateak egoten ziren, zona hartako herrialde guztiak menpean izateko. Memmon-ek, Gomorrako zuzendari maltzurrak, lurralde guztiak zeharkatzen ditu bere gerrariekin, eta aurrean harrapatzen duten guztia txikitzen dute.
00:00 7 dias, 7 noches. Teresa Viejorekin.
02:00 Noticias 3.
02:20 Televenta.
05:00 Errepikapenak.

Tele 5

Atxilotu ohi baten semearen bila 'CSI'-n 23:00
Aspaldi atxilotua izan zen pertsona batek Horatiorengana joko du, semea topatzen laguntzeko eske.

06:30 Informativos Telecinco matinal.
09:10 La mirada crítica. Vicente Vallesekin.
10:45 El programa de Ana Rosa. Ana Rosa Quintanak aurkeztuta. *La cocina de Karlos Argiñano* ere emango dute.
14:30 Informativos Telecinco. Hilario Pino eta Carme Chaparrorekin.
15:30 Aquí hay tomate. Jorge Javier Vazquez eta Carmen Alcayderekin.
16:30 La casa de tu vida. Laburpena.
17:00 A tu lado. Emma Garcia eta Felix Alvarezekin.
19:35 Alla tú. Jesus Vazquezekin.
20:30 Informativos Telecinco. Angels Barceló eta Agustin Hernandez.
21:30 Pecado original.
22:00 C.S.I. Las Vegas. *Acceso de furia.*
23:00 CSI Miami. *Unos chicos difíciles.*
00:00 Crónicas Marcianas.
02:20 Informativos Telecinco. Alvaro Rivasekin.
02:45 Madrugada de cine. *A la deriva.*
04:50 Infocomerciales.

Astean GOITBn

Astelehena, 11

'Euskal Herriko Itzulia' | 21:30

Oñatin amaitu den probaren gaineko saioa
GOITBko Julen Iriondo kazetariak joan den astean Oñatin amaitu zen Euskal Herriko Itzuliaren gaineko saio berezia prestatu du. Irudiak, elkarrizketak...

Martitzena, 12

'Mahaingurua' | 21:00, 22:30

Hauteskundeak izango dituzte berbagai
Hauteskundeen gaineko bigarren mahai-ingurua: Ezker Batuko Antxon Karrera, EHAKko Nekane Erauskin, EAJko Onintza Lasa eta Batasuneko ordezkari bat ere izango da.

Eguaztena, 13



'Auñamendietan' | 21:00

Pirinioetan barrena, Peio eta bere lagunekin
Peio Ruiz Cabestanyk eta espedizioko lagunek Pirinioetan egin daitezkeen kirol aukeren berri emango digute. Horrekin batera, Pirinioak hobeto ezagutuko ditugu.

Eguena, 14

'Behazulo' | 21:30, 23:00

Antzinako farmaziak ezagutzeko aukera
Eskoriatzako Ibarraundi jauregian, antzinako farmaziaren jardunaldiak egingo dituzte datozen egunotan. Eta Goiatz Aranak *Behazulo* saioan landuko du gai hori.

Egubakoitza, 15

'Ilunpean' | 21:00, 22:30

Itxaro Zubillagari egingo diote elkarrizketa
Urteak daramatza Itxaro Zubillagak Euskal Telebistan lanean, baina Aretxabaletakoak ATBn egin zituen lehenengo saioak, kiroletakoak gehienak.

tienda en tienda
BANAK importa

los nec esa rios

LASTER ZABALIK!

banak importa

ORAIN, GEHIEN INPORTA ZAIZKIZUN ALTZARI ETA OSAGARRIAK ESKURA DITZAKEZU:

BANAK IMPORTA ARRASATE

ORAIN, ALTZARIAK INPORTA IZANGO ZAIZKIZU

BANAK IMPORTA ARRASATE
Zerkaosteta 3
20500-ARRASATE
Tel.: 943 711 011

ASTELEHENEKO
Goienkaria
Argitaratzailea
Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea
Nafarroa etorbidea z/g • 20500 ARRASATE

Egoitza nagusia: **BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • 132 posta-kutxa
Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta-e: *goienkaria@goiena.com*
Ordezkaritzak: **Arrasate** 20500 Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 Posta-e: *arrasatepress@goiena.com*
Aretxabaleta 20550 Durana 11 • 151 posta-kutxa
Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta-e: *aretxagazeta@goiena.com*
Publizitatea: **Arrasate** 20500 Nafarroa etorbidea 2
Tel.: 943 79 21 00 • Faxa: 943 79 22 93 • Posta-e: *publi@goiena.com*
Lege Gordailua: S.S.-0088/04 • **ISSN:** 1697 3542
HARPIDETZA: 943 79 21 00 • Posta-e: *harpidetza@goiena.com*

ASTELEHENA
2005eko
apirilaren
11

Goizean: Euria
Arratsaldean: Euria

Hamarrekoa

MELINA LOPEZ I ARTISTA

"Ez nintzateke ez Carlosen ezkontzara ez Rainieroren hiletara joango"

Oihana Elortza

ASTELEHENEKO GOIENKARIA

Arrasatekoa da eta bertan bizi da. 26 urte ditu eta Arte Ederrak ikasi zituen Leioan. Arropa diseinatzaile ikasketak ere hasi zituen eta iaz XX. mendeko zortzi emakumeen bizitzan oinarritutako jantzi eskulturak egin zituen. Argazkian Frida Kahlorena du. Artetik bizi nahi du, baina beti posible ez duelako, Gesalibar auzoko Txirrita jatetxean ere badihardu.

1. Gaztea zara baina zure eskultura bat museoan dago jada. Arrasateko Emakume Sailak emandako beka batekin egin nuen eskultura hori. Emakumea eta industria lotu nituen eta Arrasateko industria erakusketan dago lana ikusgai.

2. Arropa diseinatzea ere artea izango da ba, ezta? Erlazioa badu, bai.

3. Gasteizko Artium museora eraman zenuen desfilean hori erakutsi zenuen. Emakume Sailaren bigarren bekarekin egin nituen jantzi eskulturak eta Artiumeko desfilerako moldatu egin ditut eta ibilbidean erakutsi.

4. Zuk zeuk zer arropa mota janzten duzu? Aldatzea gustatzen zait, ez dut estilo zehatzik eta denetarik janzten dut, egunaren arabera.

5. Eta nola janzten da ibarreko jendea? Arropa asko gustatzen zait eta asko erreparatzen dut pertsonen janzteko eran. Konturatu naiz azken urte hauetan kolore aldetik alaiago janzten dela; lehen bakeroa zen nagusi eta arropa zein kolore ezberdin gehiago ikusten ditut kaleetan. Gainera, uste dut gustu ona duela ibarreko jendeak janzteko. Arropa denda asko zabaldu dira eta hori seinale ona da.

6. Eta nola janzten dira politikariak? Telebistan entzun nion bati esaten Madrazo dela itxura gutxien zaintzen duena. Nik ez dut uste hori txarra denik, bere estiloari eusten diola ikusten dut eta hori gustatzen zait, bakoitza bere estiloan janztea.

7. Zer jantziko zenuke Carlos eta Camilaren ezkontzarako eta zer Rainieroren hiletarako? Ez nintzateke ez batera ez bestera joango, ezta gonbidatuta egonda ere, nik alde artistikoari egiten diot kasu eta. Hala ere horrelakoetan protokoloa jarraitu behar da eta janzteko askatasun gutxi izaten da.

8. Nori aldatuko zenioke itxura eta nori eman 10ekoa? Nire ustez desberdintasuna egotea da politena. Perfekzioaren bila bagoaz denok joango ginateke berdin eta hori ez da naturala. Bakoitzak bere estiloa behar du, moda jarraitu edo ez.

9. Amorrua ematen dizu zure arropa berdina beste bati ikusteak? Nahiago dut arropa ezberdina izatea, baina ez dit amorrurik ematen.

10. Zer moduzko tabernaria zara? Bizitzeko dirua behar da eta ezin zara geldi egon.

Biharamuna

Eñaut Arriaran

Udaberri barik

Azkenaldian ez ditut kontatzen kontatu nahi nituzkeen gertakariak. Asteburu aproposa izan da hau ere literaturaz hitz egiteko eta Seber Altube plazan jarri duten liburu azokaren berri emateko. Polita eguna, poesia bat edo bertso bat idazteko atal honetan. Baina betiko martxan gaude eta berriz ere, aktore kaskarrak bezala, betiko paper berean geratu naiz presatuta. Ez da erraza gainera, udaberriko loreak ekartzea hona, gure herrira beti negua datorrenean. Aurreko astean etorri zen udaberria geurera; **Amaia**ren irribarreak loratu zituen zelaiak. Baina betiko lez gure lili garaiak gutxi irauten du. Izotzak guztia erretzen du. Berriz ere, herriko gazteak eraman dituzte. **Gaizka** eta **Gorka** bahituta batek daki non, nola eta noiz arte. Torturatzen dituzte eurak, torturatzen dute familia eta lagunak. Herriari loreak mozten ari dira beren paparrean erakusteko. Gaizkak ez du bere argazki kamera eraman. Gorkak argi izan zuen ez zeukala kriminalek bezala bere aurpegia zertan tapatu.

Bitartean futbola ikusi genuen batzuek eta **Aita Santua**ren omenezko elizkizunen bat besteek. Beti legal direnek berbetan eman dute asteburua, nor gehiago gizenduko, nork hartuko boterea. Zera esan nahi dizuet: zatarrak zaretela. Ez zaituztedala maite. Sutan jartzen nauzue eta geroz eta gutxiago maite zaituztet.

Zaudeten lekuan zaudetela Gorka eta Gaizka, muxu bat eta eutsi goiari!

EUSKO LEGEBILTZARRERAKO
HAUTESKUNDEAK 2005

A-17

Apirilaren 18an
Asteleheneko Goienkarian:
• Debagoieneko datu guztiak
• Eguneko gorabeherak
• Ordezkari politikoen iritziak
• Analisi eta balorazioak

Erosi Asteleheneko Goienkaria ohiko tokietan edo egin zaitez harpidedun.

Harpidedun egiteko:
902 36 38 51
Astelehenetik egubakoitzera,
09:00etatik 21:00etara.

ASTELEHENEKO
Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa